



EBAZPENA (14/2009 esp., TRAUMATOLOGOEN ELKARTEA)

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2010eko azaroaren 15ean

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEAri buruzko 14/2009 espedientean. Izan ere, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikuluan debekatutako jokabideak izan zituen, ustez, besteak beste ordainsari-baremoa ezartzeko helburua zuen elkartearen eratzegatik, traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikorako ordainsariak kolektiboki ezartzeagatik eta boikota egiteagatik.

I.- AURREKARIAK

1. 2007ko abenduaren 19an, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (aurrerantzean LDEA) bidalitako idazki bat sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (aurrerantzean LDEZ). Idazki horretan 2007ko abenduaren 17ko osoko bilkuran hartutako erabakiak azaldu zituen, hitzez hitz, eta honakoa dio bigarren erabakiak:

“Era berean erabaki da agindeia egingo zaiola Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEA egindako jakinarazpenei dagokienez FIATC, IPRESA, ASISA, DKV eta ARESA aseguru-etxeek emandako informazioa azter dezan. Gainera, gai horri buruz jasoko diren informazioak Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari arian-arian jakinaraziko zaizkiola erabaki da. Jasotako informazioa erantsi zaio akta honi.”

Idazkiarekin batera, FIATC MUTUA DE SEGUROS Y REASEGUROS A PRIMA FIJA (aurrerantzean FIATC), IGUALATORIO DE PREVISION SANITARIA, S.A. DE SEGUROS (aurrerantzean IPRESA), ASISTENCIA SANITARIA INTERPROVINCIAL DE SEGUROS, S.A. (aurrerantzean



ASISA), DKV SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. (aurrerantzean DKV) eta ARESA SEGUROS GENERALES, S.A. (aurrerantzean ARESA) aseguru-etxeek LDEAri bidalitako dokumentazioa —faxen eta mezu elektronikoen kopiak— ere bidali zen. Horrela, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Gipuzkoako Elkarte (aurrerantzean Elkarte) egiten zebilen eta bertan deskribatu ziren jokabideak Lehiaren Defentsari buruzko Legearen kontrakoak izan litezkeen galdetu zen.

2. 2008ko urtarrilaren 14an espedienteari dokumentazioa eransteko eginbidea egin zuen LDEZk eta, horren bitartez, 2007ko abenduaren 26 eta 31n *Diario Vasco* egunkarian argitaratutako iragarkiak sartu zirela agerrarazi zen.
3. 2008ko otsailaren 12ko ebazpenaren bitartez, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Elkarteari buruzko informazio erreserbatua hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zehapen-espedientea ireki aurretik.
4. 2008ko martxoaren 4an LDEZk Elkarteari buruzko informazioa eskatu zuen. Eskaera horri erantzunez, eskatutako informazioa bidali zuen A.R.R. jaunak, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartean taldekatutako Traumatologiako espezialisten taldeko bozeramaile eta ordezkariak, eta 2008ko martxoaren 31n sartu zen informazio hori LDEZn.
5. 2008ko martxoaren 4an LDEZk informazioa eskatu zien FIATC, IPRESA, ASISA, DKV eta ARESA aseguru-etxeei. Aipatutako aseguru-etxeek eskatutako informazioa bidali zuten, eta jarraian adierazitako egunetan sartu ziren LDEZn. Hona hemen:
 - 1.- IPRESA: 2008ko martxoaren 17an
 - 2.- FIATC: 2008ko martxoaren 26an
 - 3.- ARESA: 2008ko martxoaren 27an
 - 4.- ASISA: 2008ko martxoaren 27an
 - 5.- DKV: 2008ko apirilaren 1ean
6. 2008ko martxoaren 4an LDEZk informazio-eskaera bidali zion Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialari (aurrerantzean GiSEO). 2008ko martxoaren 27an sartu zen LDEZn GiSEOk bidalitako informazioa.
7. 2008ko maiatzaren 16an LDEZk idazkia bidali zion Elkarteari. Idazki horrekin batera, salaketa-inprimaki bat ere bidali zen, nahi izanez gero, LDEZk espedientea ireki zezan, alde interesdunak eskatuta, Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundearen kontra.
8. 2008ko ekainaren 6an Elkarteak LDEZra bidaltzeko idazkia aurkeztu zuen postetxean. Idazki horren bitartez, honakoa adierazi zuen Elkarteak:



“[...] Agindutako lan eta erantzukizunekin zerikusirik ez daukaten tarifak ezarrita dituzten Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundeentzako zerbitzuak ematen dituzten traumatologoek ez dute eztabaida ez salaketarik eragin nahi, beste erakunde batzuek erabat desfasatuta dauden ordainsarien prebendekin jarraitzeko egin duten bezala [...]. Medikuek gara, eta egiten dakigun gauza bakarra eta egin nahi dugun gauza bakarra lan egitea da, [...] orain arte ezarri izan dizkiguten tarifa urriak hobetuko dituzten tarifa duinen arabera. Negoziazioa lortu nahi izan dugunean, aseguru-etxeek urteetan zehar egin izan duten gauza bera leporatzen digute — tarifak parekatzea, parametro batzuen barruan— [...]. Ziurgabetasun eta babesgabetasuneko egoera horretatik irteteko laguntza eskatzen dugu, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak bere estatutuak oinarri hartuta onetsitako tarifa duinak defendatu eta negoziatu ahal izan ditzagun. Honako galdera hau ere azaldu nahi dugu: ZER EGIN EGOERA KAFKIAR HONEN AURREAN?¹ Isildu eta aseguru-etxeen inposizioak onartzen jarraituko dugu? Horixe da, zoritxarrez, aseguru-etxe salatzaile batzuekin dugun harremanaren gaur egungo egoera, ez baitute negoziatu nahi, beste batzuk euren jarreran oinarritzen diren bitartean [...]”.

9. 2009ko urtarrilaren 19an, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak (LDEZ) erabaki zuen Lehiaren Defentsari buruzko Legean debekatutako lehia murrizten duten jardunbideak egiteagatiko zehapen-espeditentea irekiko zela OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN GIPUZKOAKO ELKARTEAREN kontra, bai eta salatutako gertakariekin zerikusirik izan lezaketan gainerako pertsona eta erakundeen kontra ere. Espediente horretarako instruktorea eta idazkaria izendatuko dira.

Ebazpen hori 2009ko urtarrilaren 22an jakinarazi zitzaion interesdunari. Halaber, 2009ko urtarrilaren 20an, espeditentea irekitzeko ebazpenaren berri eman zitzaion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari.

10. 2009ko urtarrilaren 29an, espeditentearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion GOMOSA, S.A.- CENTRO SANITARIO VIRGEN DEL PILAR, CSVP zentroari. 2009ko otsailaren 24an sartu zen LDEZn GOMOSA, S.A. – C.S.V. Pilar zentroak bidalitako informazioa.
11. 2009ko otsailaren 4an, espeditentearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion GiSEO elkargoari. Instruktoreak ebatzitako epea luzatzeko eskaera onartu ostean, 2009ko otsailaren 25ean sartu zen LDEZn GiSEOk bidalitako informazioa.

¹ Jatorrizkoan letra larrietan



12. 2009ko otsailaren 6an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion IPRESA erakundeari. 2009ko otsailaren 17an sartu zen LDEZn IPRESAk bidalitako informazioa.
13. 2009ko otsailaren 6an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion DKV erakundeari. 2009ko martxoaren 5ean sartu zen LDEZn DKVk bidalitako informazioa.
14. 2009ko otsailaren 6an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion ASISA erakundeari. 2009ko otsailaren 20an sartu zen LDEZn ASISAk bidalitako informazioa.
15. 2009ko otsailaren 6an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion ARESA erakundeari. 2009ko otsailaren 24an sartu zen LDEZn ARESAk bidalitako informazioa.
16. 2009ko otsailaren 6an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion FIATC erakundeari. 2009ko otsailaren 13an sartu zen LDEZn FIATCk bidalitako informazioa.
17. 2009ko otsailaren 6an espedienteari dokumentazioa eransteko eginbidea egin zuen espedientearen instruktoreak eta, horren bitartez, DKV, IPRESA, ASISA, FIATC eta ARESA erakundeen koadro medikoak (traumatologia espezialitatea) sartu zirela agerrarazi zen. Bertan ikusi da lehenengo hirurek profesional pribatuak eta klinikak dituztela euren mediku-aurkibidean, eta azken biek Quirón eta C.S.V.Pilar kliniken bitartez ematen dituztela zerbitzuak.
18. 2009ko otsailaren 18an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion QUIRÓN SAN SEBASTIAN – GRUPO HOSPITALARIO QUIRÓN, S.A.ri. 2009ko martxoaren 2an sartu zen LDEZn QUIRÓN SAN SEBASTIAN – GRUPO HOSPITALARIO QUIRÓN, S.A.k bidalitako informazioa.
19. 2009ko otsailaren 18an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion POLIKLINIKA GIPUZKOA, S.A.ri. 2009ko martxoaren 5ean sartu zen LDEZn POLIKLINIKA GIPUZKOA, S.A.k bidalitako informazioa.
20. 2009ko otsailaren 19an, alegazioak aurkeztu zituen A.R.R. jaunak, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartearen taldekatutako Traumatologiako espezialisten taldeko bozeramaile eta ordezkariak.
21. 2009ko martxoaren 2an, Frogak zati batean onartzeko probidentzia eman zuen instruktoreak eta, bertan, eskatutako frogak egitea zati batean onartuko zela ERABAKI zen. Probidentzia horretan adierazitakoaren arabera, idatziz egingo ziren frogak, eta OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO



ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEAK, alde zuzen, aurretik, egitea nahi ziren galderen agiria aurkeztu beharko zion instruktore honi. Bost asteguneko epea egongo zen horretarako, probidentziaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Elkarteak ez zuen galderen agiririk aurkeztu aipatutako epean.

22. 2009ko uztailaren 9an, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoek Elkarteari buruz zeukan informazioa bidaltzeko eskatu zion LDEZk EAEko Enpresa eta Sindikatu Elkartearen Erregistroari.

2009ko uztailaren 23an sartu zen LDEZn Elkartearen Erregistroaren idazkia, eta horrekin batera bidalitako ziurtagirian adierazi zen *EAEko Erregistro Orokor horretan ez dagoela OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEA izena duen inolako elkarterik.*

23. 2009ko abuztuaren 28an espedientearen instruktoreak gertakarien berri zehazki ematen duen agiria idatzi zuen, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera. 2009ko irailaren 7an jakinarazi zitzaion interesdunari.

24. 2009ko irailaren 17an Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren idazkia sartu zen LDEZn. Idazkiarekin batera, 2009ko irailaren 16ko ziurtagiri bat bidali zen, eta honakoa zioen, hitzez hitz:

“Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzaren mendekoa den Enpresa eta Sindikatu Elkartearen Erregistroan dauden datuen arabera, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoek Elkarteak ez dago erregistro horretan erregistratuta”.

25. 2009ko irailaren 22an Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoek Elkarteak LDEZra bidaltzeko idazkia aurkeztu zuen postetxean. Idazki horren bitartez, Elkarteak alegazioak aurkeztu zitzaizkion gertakarien berri zehazki ematen duen agiriri.

26. 2009ko urriaren 28an, instrukzio-fasea ixteko dekretua egin zuen instruktoreak, eta 2009ko urriaren 29an jakinarazi zitzaion Elkarteari.

27. 2009ko azaroaren 9an, zehapen-espedientearen ebazpen-proposamena idatzi zuen instruktoreak, eta bertan honakoa proposatu zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari:

“**LEHENENGOA:** Adieraz dezala Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1.1) artikulua debekatutako lehia murrizten duten jardunbideak egin zirela, honako hauek, hain zuzen ere:

1. Elkartearen eratzeko akordioa, besteak beste honako helburua duena: *errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datozen ordainsari-baremoak ezartzea.*



2. Gipuzkoako aseguru medikoaren eremuan traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoetarako ordainsariak kolektiboki ezartzeko erabakia.
3. Boikota egitea, Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Gipuzkoako Erakundeak behartzeko erabakitako ordainsariak onartzera, edo horiek negoziatzera, eta 2007ko urriaren 1eko gutuna bidali aurretik aseguru-etxeetako koadro medikoak osatzen zituzten traumatologoak mantentzera.

BIGARRENA: OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEA har dadila arau-hauste horien erantzulezat (sozietatearen egoitza: Frantzia pasealekua 12, etxabea – 20012 Donostia-San Sebastián.

HIRUGARRENA: Zehapena ezarri behar izatekotan, horren zenbatekoa zehaztean, kontuan izan dezala honakoa:

2007ko abenduaren 7ko jakinarazpenaren bitartez, Elkarteak esan zuen ordainsari-baremoak gutxi gorabeherakoak zirela, eta jarrerak adosteko batzarrerako gonbitea egin zuen. Hau da, inposiziotik negoziatorako urratsa eman zuen, nahiz eta ez zuen negoziazio kolektibo horretarako eskumenik, GiSEOren *onespenaren* ondorioz kontrakoa pentsatzea eragin ziezaiokeen arren.

LAUGARRENA: Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 53. artikulua aitutzen dituen gainerako adierazpenak har ditzala.“

Ebazpen-proposamen hori legezko eran jakinarazi zitzaien Elkarte interesdunari.

28. 2009ko azaroaren 30ean, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoek Elkarteak, bere ordezkariaren bitartez, alegazioak aurkeztu zizkion ebazpen-proposamenari, eta honakoa eskatu zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari:
29.
 1. Ez dadila onartu instruktorearen proposamena, artxibatzeke agindu dadila eta Elkarteak lehia murrizten duen jardunbiderik egin ez duela



adieraz dadila. Era berean, adieraz dadila Elkartea bertako kideak defendatzeko eratu zela, bere helburu nagusia ez dela ordainsari-baremoa ezartzea, eta erabaki kolektiboa ez dela ordainsariak ezartzeko, baizik eta negoziatzeko.

2. Adieraz dadila ez dela inolako boikotik egin Osasun Laguntzarako Erakundearen kontra, eta lehenengo gutunak baliogabetuta eta ondorenik gabe geratu zirela, ezeztatu egin zirela eta negoziazioak hasi zirela, elkargoaren estatutuen babespean.
 3. Adieraz dadila, 2.3, 6-10 eta 96. artikulua eta Zuzendaritza Batzordearen 2007/10/30eko akordioa oinarri hartuta, Elkargoak ahalmena eman ziola Elkarteari gutxi gorabeherako ordainsariak negoziatzeko Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuekin.
 4. Adieraz dadila Elkargoaren Zuzendaritza Batzordearen akordioa egin zenetik, negoziazioak hasi zirela Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuekin.
 5. Adieraz dadila ez duela inolako lege-araurik hautsi eta, ondorioz, ez dela inolako zehapenik ezarri behar. Halaber, espedientea artxibatzeke erabakia har dadila.
30. Elkarreak ebazpen-proposamenari egindako alegazio-idazkian jarraian azaldu diren argudioei jarraituz egin dira eskaerak. Hona hemen, labur-labur:
1. Aldez aurretik, aipatutako Elkarteko ordezkariak zalantzan ipini du zehapen-prozeduraren instrukzioa, eta adierazi du instrukzioa egin bitartean babesgabetasuna eragin zaiola bere egoera juridikoari. Halaber, zalantzan ipini du LDEZk zehapen-prozedura hasi edota jarraitzea, aseguru-erakundeek ez dutelako salaketarik ere ipini.
 2. Elkarreak legezkotasun- eta tipikotasun-printzipioen arabera jardun du, kontuan hartuta indarrean dagoen arau zehatz bati jarraituz jardun duela, eta ez indargabetutako edo ezeztatutako arauari jarraituz, edo LDEZren errekurtsoren bat jaso duen arauari jarraituz. Negoziazioak hasi zirenean indarrean zegoenez, ez dago zalantzarik, legezkotasun-printzipioaren arabera egin ziren negoziazioak. Aipatutako arau hori Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren estatutuak dira, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko ekainaren 27ko Aginduaren bitartez onetsi zirenak. Elkargo-araua da, eta gutxi gorabeherako ordainsariak ezartzeko eta Osasun Laguntzarako Erakundeekin negoziatu ahal izateko baimena ematen dio Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialari (6.n.10 artikulua), ez diola inolako aipamenik egiten Lehiaren Defentsari buruzko Legeari. Beste alde batetik, 13. puntuan, eskumena ematen dio Elkargoari nork bere kabuz mediku lanetan diharduenean kobratu behar dituen gutxi gorabeherako ordainsariak proposatzeko. Halaber, bertan dio medikuak libre lehian arituko direla eta, zerbitzu eskaintzari eta



zerbitzuengatiko ordainsariari dagokienean, Lehiaren Defentsari buruzko Legeari lotuko zaizkiola.

Sendagileen Elkargoko Batzordeak, estatutuen arabera, gaitasuna izango du gutxi gorabeherako ordainsariak ezartzeko, osunlaguntzarako erakundeekin negoziatzeko eta zeregin horiek bere jurisdikzio-eremuaren barruan sortu eta erregistratutako erakundeei eskuordetzeko, esaterako Traumatologoek Elkarteari.

3. Legearen kontrako jarduera izango litzateke gutxieneko ordainsariak ezarri izan balira. Baina ez da horrelako inposiziorik egin, ondorerik gabe utzi zutelako lehenengo gutunen edukia, eta banan-banan negoziatzen dabiltzalako aseguru-etxe bakoitzarekin eta mediku bakoitzerako, aseguru-etxe bakoitzaren lehentasunen arabera. Izan ere, batzuek euren medikuekin batera egindako akordioa aukeratu dute, eta beste batzuek banakako akordioak. Hartu diren akordio berrien bitartez, gutxieneko ordainsariak kendu eta gutxi gorabeherako ordainsariak onartu dituztenak, aseguru-etxe bakoitzarekin banakako negoziazioak egiteko jarraibideak ezarri dira.

Elkarteak bertan behera utzi du gutun eta presioen bidea, eta banakako batzarrak egin ditu aseguru-etxe guztiekin, Sanitasek Lehiaren Zerbitzuan aurkeztu duen salaketa-gutunaren ondorioz.

4. Ez dira medikuak izan jarrera berdin eta bateratuak ezarri dituztenak, baizik eta aseguru-erakundeak, modu berdinean, arautu eta bateratuan jardun baitute. Botere eta monopolio bateratuko jarduera gisa kalifikatu ditu aseguru-erakundeek jarduerak.
5. Elkarteak Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren jurisdikzioaren barruan eratu da, askatasun osoz bertan dauden Gipuzkoako traumatologoek interes profesionalak defendatzeko. Elkarteak Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren estatutuen 96. artikuluan adierazitakoaren arabera eratu da, bertako jurisdikzioaren barruan. Elkarteak legezko eskumena izan du negoziazio horiek egiteko, Elkargoko presidentek eta Zuzendaritza Batzordeak emanda, eta Elkargo gisa jarduten du.
6. 2008. urterako tarifei dagokienez, adierazi du Elkarteak ondorerik gabe utzi zituela 2008. urterako tarifei buruz aseguru-erakundeei egindako jakinarazpenak eta presio-neurriak, eta negoziazioak hasi zirela aseguru-erakundeekin. Horiek dira banaketa, eta horien baldintza eta betekizunak proposatu dituztenak.

Berebat, komenigarria da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak ikustaldia egitea.



Era berean, frogak eta jarduera osagarriak egitea eskatu du. Hona hemen, labur-labur zerrendatuta:

1. Jarduera publikoan, pribatuan eta mistoan lanean ari diren traumatologoek zerrenda bidaltzeko eskatzea Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialari eta, elkargoaren arauak kontuan hartuta, Elkarteak estatutuen arabera jardun duen.
2. Sendagileen Elkargoaren Kontseilu Nagusiari eskatzea zuzenean edo elkartearen bitartez Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundeekin egin izan dituzten gutxi gorabeherako ordainsarien negoziazioei buruz dagoen dokumentazio guztia aurkezteko.

Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundeekin, UNESPArekin edo bertako ordezkariekin negoziatzeko gutxi gorabeherako ordainsariak ezartzeko Elkargoek duten eskumenari buruzko ziurtagiria eskatzea Kontseilu Nagusi horri.

Kontseiluak eta Elkargoek gutxi gorabeherako ordainsari-baremoak ezarri eta negoziatu ezin dituztela jakinarazten duen Lehiaren Auzitegiaren edo Gobernuaren erakunderen baten idazkia jaso izanari buruzko ziurtagiria.

Azkenik, gutxi gorabeherako ordainsariak ezartzeari eta horri buruzko negoziazioei buruz euren artxiboetan dauden dokumentazio eta txosten guztiak.

3. Alegazio-idazkian zerrendatutako pertsonen lekuko-frogak.

31. 2009ko otsailaren 4an, zehapen-prozeduraren instruktoareak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, besteak beste, honako dokumentazio hau eskatu zion Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialari:

- *Medikuntza eta Kirurgian (Traumatologia espezialitatean) lizentziatu eta doktoratuaren zerrenda.*
- *Elkargo horretako kideak (edo sendagileen beste elkargo bateko kide izan arren lurralde horretan lan egiten dutela jakinarazi dutenak), Elkargo horretan "jarduneko" gisa erregistratuta badaude; eremu publikoan bakarrik lan egiten duten eta 2007. urtearen ondoren hasi diren lanean zehaztu beharko da.*

32. 2009ko otsailaren 19an, A.R.R. jaunak, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuak Traumatologoek Elkartearen taldekatutako Traumatologiako espezialisten taldeko bozeramaile eta ordezkariak, hainbat pertsona proposatu zituen lekuko-frogetarako: Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundeetako ordezkariak, abokatuak eta ordezkariak (6) eta Kliniketako gerenteak (4).



33. 2009ko otsailaren 25ean Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak bidalitako idazkia sartu zen LDEZn. Idazki horrekin batera, dokumentazioa bidali zuen.
34. 2009ko martxoaren 2an, Frogak zati batean onartzeko probidentzia eman zuen zehapen-prozeduraren instruktoreak eta, bertan, eskatutako frogak egitea zati batean onartuko zela erabaki zen. Probidentzia horretan adierazitakoaren arabera, idatziz egingo ziren frogak, eta OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEak, aldez aurretik, egitea nahi ziren galderen agiria aurkeztu beharko zion instruktoreari. Bost asteguneko epea egongo zen horretarako, probidentziaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

2009ko martxoaren 4an jakinarazi zitzaion probidentzia Elkarteari. Elkarateak ez zuen galderen agiririk aurkeztu aipatutako epean.

35. 2009ko abenduaren 4an, LDEZk, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 50.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz, 19/2007 zehapen-espeditentea bidali zion LDEAri, ebazpena eman zezan. Espeditentearekin batera, txosten bat ere bidali zuen, eta bertan ebazpen-proposamena eta interesdunek egindako alegazioak azaldu ziren, bai eta ikustaldi-eskaera eta frogak eta jarduera osagarriak egiteko eskaera ere.
36. Zehapen-espeditentearekin batera bidalitako txostenean, instruktoreak adierazi du Elkarateak ebazpen-proposamenari ipinitako alegazioak ez dutela inola ere indargabetzen bertan adierazitakoa, eta guztiz errepikatu da.
37. LDEZk bidalitako zehapen-espeditenteak 14/2009 zenbakia (TRAUMATOLOGOEN ELKARTEA) hartu du LDEAn.
38. 2010eko uztailaren 1ean LDEAk agindeia egin zion LDEZri, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 13. eta 51. artikuluetan xedatutakoaren arabera, jarraian zehaztu den frogak egin zezan, fase prozesal horren bitartez eskatu behar den informazioa beharrezkoa delako. LDEAk, era berean, zehapen-prozedura ebazteko epea etengo zela erabaki zuen, izapide prozesal horren bitartez eskatu beharreko informazioa beharrezkoa baita ebazpena emateko.

Aipatutako administrazio-espeditentearekin zerikusia duten Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuei eskatzea *Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkarte* osatu zuten kideetako bakoitzak erakunde bakoitzean sortutako ordainsari profesionalak adieraztea. Ordainsari profesionalak 2008. eta 2009. urteetako ekitaldi ekonomikoetakoak izan beharko dira.

39. 2010eko uztailaren 8an, LDEAk hartutako akordioa jakinarazi zion LDEZk Elkarteari (aurreko aurrekarian azaldu da), alegazioak aurkeztu ahal izan



zitzan, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 51.1 artikuluan azaldutakoaren arabera. Era berean jakinarazi zion aipatutako frogagaitza egiteko LDEAren akordioaren ondorioz, eten egingo zela administrazio-prozedura ebazteko epea, izapide prozesal horren bitartez eskatuko zen informazioa beharrezkoa zelako zehapen-prozedura ebazteko.

40. 2010eko uztailaren 15ean, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartearen ordezkariak A.R.R. jaunak sinatutako idazkia bidali zion Elkarteak LDEZri. Idazki hori 2010eko uztailaren 26an sartu zen LDEZn. Aipatutako idazkiaren bitartez, Elkarteak adierazi zuen LDEAk proposatutako frogagaitza egiteak akatsera eragin lezakeela gertakariari dagokien eta, ondorioz, honako frogabideen arabera handitu eta zehazteko eskatu zuen. Hona hemen:

1. Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuekin hitzarmena duten Gipuzkoako lau klinika pribatuei (Donostiako El Pilar klinika, Tolosako La Asunción klinika, Donostiako poliklinika eta Quirón Guipúzcoa klinika) datu hauen berri zehazki emateko eskatzea:
 - a) Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuetako aseguratuei zerbitzua ematen dieten koadro medikoko traumatologoaren kopurua, klinikarekin zerbitzuak emateko kontratua duten medikuen zerrenda, eta klinika den ordainsariak ordaintzen dizkiena, erakunde horietako aseguratuei egindako jardueraren medikoak kontuan hartu gabe.
 - b) klinika bakoitzean zerbitzuak ematen dituzten traumatologoaren kopurua,
 - c) traumatologoaren eta klinikaren artean formalizatutako kontratuak,
 - d) medikuen eta ordainsari profesionalen zerrenda, 2010. urteari dagokien eta,
2. Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuek, ordainsari berriak ituntzean ezarritako baldintzatzaileak, baja eman duten medikuak eta baja emateko arrazoiak azaltzea.
3. Espedientean zerrendatutako Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatu bakoitzean zerbitzuak ematen dituzten traumatologoaren zerrenda, baja eta alta emanda duten traumatologoak, eta 2010. urtean sortutako ordainsariak.
4. Idazkia bidaltzea Lagun Arori, aseguratuen kopurua eta Gipuzkoan erakunde horrentzat zerbitzuak ematen dituzten traumatologoaren izenak zehatz ditzen.
5. Zerrendatutako pertsona batzuen lekukotzak.
6. Azkenik, berriro aipatu ditu 2009ko otsailaren 9ko eta 2009ko azaroaren 25eko idazkietan eskatutako frogak.



41. 2010eko uztailaren 22an, LDEZk, LDEAk xedatutakoa betez, froga egin zuen. Horrela, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkarte osatu zuten kideetako bakoitzak 2008 eta 2009ko ekitaldi ekonomikoetan erakunde bakoitzean sortutako ordainsari profesionalak adierazteko eskatu zien LDEZk ARESA Seguros Generales, SA, ASISA-Asistencia Sanitaria Interprovincial de Seguros S.A, DKV Seguros y Reaseguros, S.A, FIATC-Mutua de Seguros y Reaseguros a Prima Fija eta IPRESA-Igualatorio de Previsión Sanitaria, S.A. erakundeei.
42. 2010eko abuztuaren 4an LDEAren Osoko bilkurak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, uko egin zion 14/2009 espedientean (TRAUMATOLOGOEN ELKARTEA) froga osagarriak egiteari, eta Elkarteak eskatu zuen froga osagarriak egiteko jardunbideari uko egingo zitzaiola erabaki zuen. Probidentzia hori legezko eran jakinarazi zitzaion Elkarteari.
43. Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuek eskatu zioten informazioa bidali zioten LDEZri, eta egun hauetan sartu ziren LDEZn:
 1. IPRESA, Igualatorio de Previsión Sanitaria, S.A.: 2010eko uztailaren 29an eta abuztuaren 9an.
 2. FIATC, Mutua de Seguros y Reaseguros a Prima Fija: 2010eko uztailaren 29an.
 3. ASISA, Asistencia Sanitaria Interprovincial de Seguros, S.A.: 2010eko abuztuaren 2an.
 4. DKV, Seguros y Reaseguros, S.A.: 2010eko abuztuaren 6an.
 5. ARESA, Seguros Generales, S.A.: 2010eko abuztuaren 9an.
44. 2010eko abuztuaren 10ean, egindako froga-eginbideen emaitza bidali zion LDEZk LDEAri, bai eta LDEZk Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuei bidalitako eskaera-idazkien kopia ere.
45. 2010eko abuztuaren 16an LDEA honek LDEZk egindako froga-eginbideen emaitza adierazi zion Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkarteari, Elkarteak jakin zezan eta, bidezkoa izatekotan, emaitzaren irismen edo garrantziari buruzko alegazioak aurkez zitzaion.
46. 2010eko irailaren 1ean Elkartearen idazkia sartu zen LDEAn. Idazki horren bitartez, Elkarteak adierazpenak egin zituen LDEZk egindako froga-eginbideen emaitzari buruz. Adierazpen horien bitartez, Elkarteak berriro eskatu zuen zenbait froga-eginbide egiteko, eta LDEAk eskatuta LDEZk egin zituen froga-eginbideak ikusteko eskatu zuen.
47. 2010eko irailaren 22an, LDEAren Osoko bilkurak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, berriro egin zion uko Elkarteak eskatutako froga egiteari, eta onartu egin zuen espedientea ikustea, aurreko aurrekarian aipatutako froga-eginbideei dagokienez.



Probidentzia hori legezko eran jakinarazi zitzaien Elkarte interesdunari.

48. 2010eko urriaren 13an Elkartearen ordezkaria LDEAren egoitzara joan zen, eta 14/2009 espedienteaz aztertu ahal izan zuen, LDEAk eskatuta LDEZk egin zituen froga-eginbideei dagokienez.
49. 2010eko urriaren 26an LDEZk idazkia bidali zion LDEAri. Idazki horren bitartez, LDEAk eskatuta LDEZk egin zituen froga-eginbideetako dokumentazioa aztertu ondoren, jarraian labur-labur azaldu diren adierazpenak egin zituen:

Elkarteak inoiz ere ez da konturatu lehiari buruzko araudia hausten dabilenik, eta egin nahi izan duen gauza bakarra aseguru-erakundeek ordainsari-baremoa izoztearen ondorioz bertako kideentzat sortutako egoera kritikoa gainditzea izan da.

Elkarteak onartu egin du gehiegikeriaz jokatu zutela aldarrikapenak egitean eta, oharkabean, ez zutela bete Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legean ezarritakoa, gutxieneko ordainsariak ezarri baitzituzten. Gero, hala ere, uko egin zieten ordainsari horiei.

Lehenengo akats horren ondoren, uko egin zioten gutxieneko ordainsariak ezartzeari, eta negoziazioak hasi zituzten Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuekin, 2008., 2009. eta 2010. urteetarako ordainsariak itunduz.

LDEAk ondorioztatzen badu Elkarteak ez zuela lehiaren defentsari buruzko araudia bete, Elkarteak onartu egingo du 6.000 eurora arteko isun-zehapena ezartzea.

50. 2010eko azaroaren 2an, LDEAk, Osoko bilkuran, zehapen-prozedura ebazteko epearen etena kenduko zela erabaki zuen. Akordio hori legezko eran jakinarazi zitzaien Elkarte interesdunari.
51. LDEAk, 2010eko azaroaren 15ean egindako osoko bilkuran, espediente horri buruz eztabaidatu eta epaia eman zuen.
52. Honako hauek dira interesdunak:

– **OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEA.**

II.- FROGATUTAKO GERTAKARIAK.

53. LDEAk uste du instrukzioa egin bitartean LDEZk egiaztatu egin dituela jarraian deskribatu diren gertakariak:



LEHENENGOA: 2007ko irailaren 17an egindako batzarrean, Gipuzkoan lan egiten zuten 41 traumatologok² Traumatologoaren elkargo-eremuko elkarte edo talde batean sartzea erabaki zuten, eta hainbat ordezkari izendatu zituzten Traumatologiako espezialisten elkarte edo taldea abiarazteko, GiSEOn kudeaketak egin zitzaten eta batzarrean azaldutako ordainsari-baremoak zehaztu eta presta zitzaten, eta gutunak bidal ziezazkieten erakundeei (499 eta 500. folioak).

Elkartearen estatutuek honakoa diote 1. artikuluan: *Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartearen izenarekin, osasun-laguntzarako erakunde pribatuentzat lan egiten duten traumatologoak taldekatu egin dira, Elkartearen eratu eta elkargoaren jurisdikzioaren barruan eta bertako gobernu-organoen barruan, irabazi-asmorik gabe, Elkargoaren estatutuen 96. artikuluan xedatutakoari jarraituz.* Halaber, helburuen artean (2. artikulua), honakoa adierazten da: [...] *Osasun-laguntzarako erakunde pribatuekiko eta traumatologiaren eremuan interesa duten beste elkarte batzuekiko harremanak sustatu, defendatu eta koordinatzea, errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datozen ordainsari-baremoak ezartzea, eta aseguru-etxeek eta gainerako pertsonen medikuen kontra egiten duten jazarpen eta intrusismoaren kontra egitea [...]* (498. folioa).

Honakoek osatzen duten Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartearen Zuzendaritza Batzordea: A.R.R. (presidentea), I.G.N. (presidenteordea), (idazkaria), P.A.C. (diruzaina), C.A.M. (1. kidea), R.S.T. (2. kidea), L.C.C. (4. kidea) eta E.E.S. (5. kidea) (487. folioa).

Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak honakoa dio 7.2 artikuluan: *Elkarateek nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa dute eraketa-akta, agiri publikoan edo pribatuan, egilesten den unetik bertatik.*

BIGARRENA: 2007ko irailaren 25ean, GiSEOren Zuzendaritza Batzordeak jakin zuen Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartearen eratu zela, eta A.R.R. elkargokideak egindako eskaera onartuko zela erabaki zuen, baimena eman zela Elkartearen helbidea honako hau izateko: Frantzia pasealekua 12, etxabea, 20012 Donostia-San Sebastián (330. folioa).

GiSEOren Gobernu Batzordeak, 2007ko urriaren 29ko Osoko bilkuran, honakoa erabaki zuen (326 eta 327. folioak):

1. *Elkargoaren estatutuen 96. artikulua oinarri hartuta, Batzordeak onartu egiten du OSASUN-LAGUNTZARAKO ERAKUNDE*

² Traumatologoaren zerrenda: 488. folioa.



PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTE PROFESIONALA, betiere bertan borondatez izena eman duten sendagileen interes profesionalak babesteko sortu badira.

Era berean, Elkarteak proposatutako ordainsari-baremoak ezarri dira eta gutxi gorabeherakoak baino ez dira izango, nahitaez.

- 2. Ados egon dira Elkarteko kideek Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundeen ordezkariekin negoziatu ahal izateko espezialitatearen berezko zerbitzuak emateari aplikatu beharreko ordainsariak ezarriko diren.*
- 3. Jarduna ordezkatzeko duen kidea eskuordetuko da Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofiziala ordezkatzeko eskumena, negoziazioetara joan ahal izan dadin.*

HIRUGARRENA: GiSEOk ez du hitzarmenik ezarri ez formalizatu Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundeekin, zerbitzuak emateari aplikatu beharreko ordainsariak ezartzeko (938. folioa).

LAUGARRENA: Traumatologia eta kirurgia ortopedikoko espezialitateari dagokionez, ez GiSEOk Gobernu Batzordeak ez Aseguru Libreko Erakundeen ordezkariak, ez dute batzar ez harremanik izan Aseguru Libreko Erakundeekin zerbitzuak emateari aplikatu beharreko ordainsariak zehazteko hitzarmenak ezartzeko (330. folioa).

BOSGARRENA: 2007ko urriaren 1ean Elkarteak idazkia bidali zien IPRESA, FIATC, ASISA, DKV eta ARESA aseguru-etxeei. Idazkiotan azaldu zuen gutxienez buruzko zenbait akordio hartu zirela, aho batez, Gipuzkoa eremurako osasun-laguntzarako eta osasunerako erakunde pribatuei kobratu beharreko tarifei dagokienez, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko. Era berean adierazi zuen haiekin lan egiten zuten aseguru-etxe guztiei jakinaraziko zitzaizela (007-008, 013-014, 015-016, 021-022, 024-025 folioak).

Idazkiak *gutxienez buruzko akordioak* jakinarazten zituen, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango zituztela ondorioak. Halaber, *hartutako akordioak* zerrendatzen zituen, bai eta kontsultetarako eta mediku- eta kirurgia-lanetarako ordainsariak ere. Era berean, Elkarteak GiSEOk Zuzendaritza Batzordearen babes eta laguntza zuela adierazten zuen. Zerrendatutako tarifak bat datoz 2007-10-26an GiSEOri berresteko eskatu zitzaizkionekin (GiSEOren 2007-10-29ko Gobernu Batzordean aztertu zen gaia).

HARTUTAKO AKORDIOAK

KONTSULTA

LEHENENGO KONTSULTA ETA HURRENGOAK	30,00€
ESP. ARTEKO OSPIT. KONTSULTA	30,00€
KIRUR. GABEKO PAZIEN. OSPIT. LAGUNTZA	30,00€



ESP. LARRIALD. ARRETA (gehienez 20 ordu)	100,00€
ESP. LARRIALD. ARRETA (20 ordutik gora)	120,00€
ESP. LARRIAL. ARRET. IGAN. ETA JAIEGUN.	120,00€

MEDIKU- ETA KIRURGIA-LANAK

0. TALDEA	78,36€
1. TALDEA	97,94€
2. TALDEA	198,66€
3. TALDEA	320,40€
4. TALDEA	486,70€
5. TALDEA	760,50€
6. TALDEA	1.284,40€
7. TALDEA	2.011,10€
8. TALDEA	2.366,00€

SEIGARRENA: 2007ko azaroaren 2an, elkarteak beste idazki bat bidali zien IPRESA, ARESA, FIATC eta ASISA aseguru-erakundeei, 2007ko urriaren 1eko gutunaren edukia berretsiz. Bertan, eraketa eta ordezkagaitasunari buruzko zenbait zalantza argitzen dira eta, gainera, berriro diote ***bidalitako ordainsariak gutxienekoak direla erakunde guztientzat, eta 2008ko urtarrilaren 1erako ezarri behar direla***³. Era berean erantsi da **2008ko urtarrilaren 1erako erakunde horrek ez baditu gutxieneko horiek guztiz baieztatzen, bere koadroko medikuek ez dietela arretarik egingo aseguru-erakunde horren paperarekin zetozen aseguratuei, salbuespena izango dela zenbateko handiagoak ordaintzen badituzte (horri buruzko txostena egitea eskertuko diogu Elkarteari), baina “paziente partikular” bezala eman ahal izango zietela arreta**⁴ (205, 206, 241, 242, 317-319, 374-376 folioak).

ZAZPIGARRENA: Azaroaren 30ean, Elkarteak, GiSEOren eta ATPPGren (Gipuzkoan jardute pribatua duten traumatologoek elkarrekin) idazpuruak zituzten jakinarazpenak bidali zizkien IPRESA, FIATC eta ASISA aseguru-etxeei. Bertan jakinarazi zien, aseguru-etxe horiekin akordiorik lortu ez zenez, idazkietan zerrendatutako 41 traumatologoek banakako uko-idazkiak aurkeztu zituztela (164-204, 369, 370, 276-314 folioak).

ZORTZIGARRENA: 2007ko abenduaren 3an ezezagun batek kartel bat ipini zuen C.S.V. Pilar zentroan, eta gerenteak kendu zuen. Honakoa zioen kartelak: *OHARRA, TRAUMATOLOGIA KONTSULTA. Honen bitartez*

³ Jatorrizkoan letra lodian eta azpimarratuta.

⁴ Jatorrizkoan letra lodian.



jakinarazi behar dizuegu 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ezin izango diegula arretarik eman osasun-laguntzarako aseguru-etxe hauetako pazienteei: ASISA, IPRESA eta FIATC. Izan ere, ez dira sinatu Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak proposatu dituen gutxi gorabeherako ordainsari-baremoak eguneratzeari buruzko akordioak (bere Estatutuen 6n. 10 eta 13 art.). Informazio gehiago nahi izanez gero, galdetu zure aseguru-etxeari (819, 820, 914 folioak).

BEDERATZIGARRENA: Abenduaren 7an, Elkartek, GiSEOren eta ATPPGren (Gipuzkoan jardute pribatua duten traumatologoek elkartea) idazpuruak zituen idazki bana bidali zien IPRESA, FIATC eta ASISA aseguru-etxeei. Bertan, aseguru-etxe batzuek adierazitako zalantzak zirela eta, honakoa azaldu zuen, besteak beste: [...] *aipatutako arauak aztertuta, ez da inolako araudirik hautsi ordainsari-baremoak (gutxi gorabeherakoak, eta ez direnak ez agintzaileak ez nahitaezkoak) ezartzeari eta Elkartek [...] Erakundeen ordezkariekin negoziatzeko duen eskumenari dagokionez [...], horixe baita Elkargoaren Zuzendaritza Batzordeak onartutako Elkarteen asmoa [...]. Egon litezkeen gaizkiulertuak argituta, **BERRIRO ERE LUZATU NAHI DIZUGU BATZAR BAT EGITEKO GONBITEA, ASEGURATUEN ETA OSASUNA BABESTEAREN ONERAKO IZANGO DIREN JARRERAK ADOSTEN SAIATZEARREN**⁵. (161, 162, 271, 272, 364, 365 folioak).*

HAMARGARRENA: ATPPG delakoa (Gipuzkoan jardute pribatua duten traumatologoek elkartea) ez da azaltzen GiSEOren jurisdikzioan legez ezarritako elkarte edo talde profesionalen artean (940, 941 folioak).

Hala eta guztiz ere, ATPPG delakoa Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoek Elkartea dela ondorioztatu da, honakoak oinarri hartuta:

GiSEOren eta ATPPGren idazpuruak zituen azaroaren 7ko idazkia bat dator Elkartek 2007-12-05ean egin zuen *Aseguru-etxeentzako erantzun juridikoa* izeneko testuarekin (479, 480 folioak).

Abenduaren 7an, Elkartek, GiSEOren eta ATPPGren idazpuruak zituen idazkia bidali zien IPRESA, FIATC eta ASISA aseguru-etxeei. Bertan honakoa azaldu zuen, besteak beste: [...] **Gipuzkoan jardute pribatua**

⁵ Jatorrizkoan letra lodian eta letra larrietan.



duten traumatologoek elkartea eratu da⁶, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren Zuzendaritza Batzordeak onartuta (161, 162, 271, 272, 364, 365 folioak). Zuzendaritza Batzordeak, GiSEOren idazkari nagusia den J.M.B. jaunaren ziurtagiriaren arabera, 2007ko urriaren 29ko batzarrean [...] onartu egin zuen OSASUN-LAGUNTZARAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTE OFIZIALA⁷, eta izen hori hurbilago dago Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoek Elkartea izenetik, horixe dela Elkartearen ordezkariak GiSEOri egindako eskaeran azaldu zuena (326-329 folioak). Halaber, GiSEOren Zuzendaritza Batzordeak 2007-09-25ean egindako batzarraren aktan, honakoa agertzen da: *P.A.C. jaunak jakinarazi du Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuetako Traumatologoek Elkartea eratu dela* (330 folioa).

HAMAIKAGARRENA: 2007ko abenduaren 13 eta 17an batzarrak egin ziren Elkarteko kideen, Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundeek eta osasun-zentro batzuetako ordezkarien artean.

HAMABIGARRENA: 2007ko abenduaren 26an iragarki bat argitaratu zen *Diario Vasco* egunkariko 25. orrialdean, eta honakoa zioen: Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Gipuzkoako Traumatologoek honakoa jakinarazi nahi dute: 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, jarraian azaldu diren espezialistak ez dira IPRESA eta FIATC aseguru-etxeetako koadro medikoetako kide izango: [...] (40 espezialistako zerrenda azaldu da) (31 folioa).

HAMAHIRUGARRENA: 2007ko abenduaren 31n iragarki bat argitaratu zen *Diario Vasco* egunkariko 6. orrialdean, eta honakoa zioen: “Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Gipuzkoako TRAUMATOLOGOEN jakinarazi nahi dute, zerbitzu profesionala emateko oinarriak buruzko akordioa lortu denez IPRESAekin, koadro medikoak ez duela inolako aldaketarik izango, eta baliogabetu egingo dela egunkari honetan egin zen aurreko jakinarazpena” (32 bis folioa).

HAMALAU GARRENA: Elkarreak bere ordezkarietako hiruk sinatutako 2008ko urtarrilaren 16ko itun-proposamena aurkeztu zuten IPRESA eta

⁶ Jatorrizkoan letra lodian.

⁷ Jatorrizkoan letra larrietan.



FIATC aseguru-etxeei, eta sinadura eta datarik gabe ARESAri. Hirurak dira antzeko ereduaren arabekoak.

Halaber, 2008ko otsaileko data duen ituna aurkeztu zion ASISAri, bere koadro medikoko traumatologo guztiek eta ASISAK sinatzeko, eta hori ez dator bat IPRESA, FIATC eta ARESA aseguru-etxeei aurkeztutako ereduarekin. (157-160, 230-233, 265-268, 342-345 folioak)

Horietan guztietan honakoa dira proposatutako tarifak:

	URTEA		
	2008	2009	2010
KONTZEPTUA			
LEHENENGO KONTSULTA eta	24,00	27,00	30,00
HURRENGOA	16,00	23,00	30,00
ESP. OSPIT. KONTSULTA	24,00	27,00	30,00
KIRUR. GABEKO PAZIEN. OSPIT. LAGUN	24,00	27,00	30,00
MEDIKU- ETA KIRURGIA-LANAK			
0. TALDEA	36,57	57,47	78,36
1. TALDEA	58,48	78,21	97,34
2. TALDEA	104,10	151,40	198,70
3. TALDEA	196,00	258,20	320,40
4. TALDEA	303,40	395,10	486,70
5. TALDEA	507,00	633,80	760,50
6. TALDEA	856,30	1.070,00	1.284,00
7. TALDEA	1.341,00	1.676,00	2.011,00
8. TALDEA	1.577,00	1.972,00	2.366,00

HAMABOSGARRENA: 2009ko otsailaren 6an DKV, IPRESA eta ASISAK profesional pribatuen eta osasun-zentroyen bitartez eskaintzen dituzte traumatologia-zerbitzuak euren koadro medikoetan. Aldiz, FIATC eta ARESA aseguru-etxeek, Quirón eta C.S.V. Pilar osasun-zentroyen bitartez ematen dituzte zerbitzuak (688-734 folioak).

HAMASEIGARRENA: IPRESA, DKV eta ASISAREN koadro medikoetako traumatologoek emandako zerbitzuetarako aplikatu eta aurreikusitako tarifak, 2008, 2009 eta 2010. urteetarako, antzekoak dira, 1. eranskinean islatu den bezala (786-789, 957-959, 834, 835 folioak).

1. ERANSKINA

KONTZEPTUA	2008			2009			2010		
	IPRESA	DKV*	ASISA	IPRESA	DKV	ASISA	IPRESA	DKV	ASISA



HURRENGOA/AZTERKETA	24,00	24,00	24,00	27,00	27,00	27,00	30,00	30,00	30,00
ESP. OSPIT. KONTSULTA	16,00	16,00	16,00	23,00	23,00	23,00	30,00	30,00	30,00
KIR. GABEKO PAZIEN. OSPIT. LAGUN	24,00	24,00		27,00	27,00		30,00	30,00	
ASTEGUN. ARRETA (gehienez 20 h.)		80,00			90,00			100,00	
ESP LARRIAL ARRET JAIEG ETA ASTEG (20 ordutik gora)		100,00			110,00			120,00	
	24,00	24,00		27,00			30,00		
MEDIKU- ETA KIRURGIA-LANAK									
0. TALDEA	36,57	36,57	36,57	57,47	57,47	57,47	78,36	78,36	78,36
1. TALDEA	58,48	58,48	58,48	78,21	78,21	78,21	97,34	97,34	97,34
2. TALDEA	104,10	104,10	104,10	151,40	151,40	151,40	198,70	198,70	198,70
3. TALDEA	196,00	196,00	196,00	258,20	258,20	258,20	320,40	320,40	320,40
4. TALDEA	303,40	303,40	303,40	395,10	395,10	395,10	486,70	486,70	486,70
5. TALDEA	507,00	507,00	507,00	633,80	633,80	633,80	760,50	760,50	760,50
6. TALDEA	856,30	856,30	856,30	1.070,00	1.070,00	1.070,00	1.284,00	1.284,00	1.284,00
7. TALDEA	1.341,00	1.341,00	1.341,00	1.676,00	1.676,00	1.676,00	2.011,00	2.011,00	2.011,00
8. TALDEA	1.577,00	1.577,00	1.577,00	1.972,00	1.972,00	1.972,00	2.366,00	2.366,00	2.366,00

*2008ko uztailaren 10etik aurrera

III.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

54. Aplikatu beharreko arauak

2007ko irailaren 1ean sartu zen indarrean Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea. Ebazteko dagoen espediente honen kasuan, LDEZk Lehiaren Defentsari buruzko Legearen urraketatzat hartzen duen salatutako jokabidea 2007ko aipatutako legea indarrean sartu zen hilean hasi zen, eta luzatu egin zen. 2009ko urtarrilaren 19an ireki zen zehapen-espedientea eta, beraz, Lehiaren Defentsari buruzko indarrean dagoen 15/2007 Legearen arabera izapidetu da espedientea, lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz.

55. Espedientearen helburua.

Espediente honen helburua LDEZk egindako ebazpen-proposamenak mugatzen du. LDEA honek ebatzi behar du Elkarteak egindako jokabideek —hau da, elkarte-izaerako pertsona juridiko hori eratzea, besteak beste ordainsari-baremoa ezartzeko helburuarekin, Gipuzkoako aseguru medikoaren eremuan traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoetarako gutxieneko ordainsariak ezartzeko akordioa hartzea, eta boikota egitea— lehia murrizten duten, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua murrizketa hori debekatzen duela.

56. Ikustaldia egiteko eskaera.

Elkarteak ikustaldia egiteko eskaera azaldu du ebazpen-proposamenari aurkeztutako alegazioen idazkian, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Eskaera horri dagokionez, LDEA



honek ez du uste ikustaldia egitea beharrezkoa denik zehapen-espedita ebazteko, zehapen-espeditan bertan badaudelako LDEA honen iritzia osatzeko beharrezko agiri-elementuak.

57. Merkatu-egitura.

Elkarteak lehia murrizten duen portaerarik izan duen eta, ondorioz, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua egin den estimatu ahal izan baino lehen, merkatu adierazgarria mugatzea komeni da (Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 1978ko otsailaren 14ko epaia, United Brands Continental/Batzordea, 27/76). Horri dagokionez, LDEAk bere gain hartu du LDEZk ebazpen-proposamenean egin duen merkatuaren deskribapena, behar bezala eta egoki deskribatzen baitu merkatu adierazgarria aztertzen gabiltzan kasuan.

Osasun-laguntzarako aseguru pribatua Estatuko osasun-sistema publikoa osatzen edo ordeztzen duen beste bide bat da, eta herritarrak hortaz balia daitezke osasun-arreta jasotzeko. Modalitatea⁸ eta eskaera-mota⁹ alde batera utzita, aseguru honek osasun-laguntzarako aseguruaren merkatu adierazgarria eratzen du, hitzartutako zein aukera askeko laguntzak daudela barruan eta, geografia-eremuari dagokionez, probintziakoa edo lurraldekoa izan daitekeela.

Gipuzkoaren kasuan, 2077an 28.111 poliza¹⁰ eta 63.922 aseguru¹¹ zeuden, hau da, aseguraturako biztanleriaren % 9,3. Negozio-bolumenari

⁸ Bi modalitate daude:

1. Aseguratzailak hitzartutako osasun-laguntza, mediku, ospitale eta zerbitzu mediko jakinek ematen dutela aseguratuak ezer ordaindu gabe (ezarritako frankiziaz izan ezik). Aseguratzailak hainbat zentro eta mediku ditu hitzartuta, eta ordainsari zehatz bat ituntzen du horiek. Kasuen arabera, ordainsari horrek hainbat modalitate hartu ahal izango ditu: soldatak, emandako zerbitzuengatik ordainketak, aseguratuak zerbitzua jasotzean betetako mediku-txekeak, edo mediku bakoitzari paziente kopuru zehatza esleitzen dioten "igualak".
2. Aukera askeko osasun-laguntza edo gastuak itzultzeko asegurua. Horrelakoetan, aseguratzailak konpromisoa hartzen du aseguratuak egindako ordainketak ordaintzeko, bidezko frogagiriak aurkeztu ondoren. Aseguratuak komenigarritzat jotzen duen medikuarengana edo ospitalera joan daiteke behar duen arreta medikoa jasotzeko.

⁹ Hauek egiten dituzten osasun-laguntzarako aseguruaren eskaerak:

- partikularrek, banakako eta familiako polizak kontratatzen dituztela.
- taldeek. Horrelakoetan bi mota nagusi daude:
 - o Herri-administrazioetako enplegatuen mutualitateak (MUFACE, ISFAS, MUGEJU). Hauek hitzarmenak dituzten aseguru-erakundeekin.
 - o Enpresak. Osasun-laguntza pribatua eskaintzen diete langileei, laguntza publikoa ordeztzeko edo osatzeko.

¹⁰ Iturria: EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.
http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0000000/ti_Asistentzia_mediko-farmazeutikoko_aseguru_libreko_entitateak_Ezaugarri_nagusiak_2008/tbl0000074_e.html



dagokionez¹², DKV (% 21,68), ASISA (% 27,75), FIATC (% 1,00) eta IPRESA (% 12,30) enpresek (ez da ARESari buruzko daturik agertzen) % 62,73 izango lukete Gipuzkoan 2007. urtean.

Merkatuan dauden aseguru-etxeen eskaintzaren konfigurazioan, eskainitako espezialitatez gain, garrantzitsua da erakargarria izango den mediku-koadroa izatea. Koadro horiek osatzeko, medikuek edo espezialitate horiek dituzten ospitaleek eskainitako espezialitate mediko ezberdinak kontratatu behar dira eta zerbitzu medikoa emateko baldintzak hitzartu behar dira horiekin. Baldintza horiek ezberdinak izan beharko dira asegururik ez duten zerbitzu medikoei osatzen dutenekin alderatuta eta, beraz, ez dira trukagarriak izango.

Horrenbestez, produktuaren ikuspegitik, traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoei osatzen dute merkatu adierazgarria, traumatologoei edo espezialitate hori duten ospitale-zerbitzu pribatuek zuzenean eskainitakoak hartzen dituen aseguru medikoaren eremuan. Zerbitzua emateari atxikitako ezaugarriak direla eta¹³ (hurbiltasuna, berehalakotasuna), merkatu hau Gipuzkoa lurralde-eremuan garatzen da, eta bat dator Elkartearen jarduerarekin.

Gipuzkoan 110 mediku elkargokide daude¹⁴ Traumatologia eta Kirurgia Ortopedikoko espezialitatean. Horietatik 73¹⁵ traumatologoei dira, eta horietako 36 jardute publikoan eta pribatuan aritzen dira (923-926 folioak). Gainera, 19 traumatologo zerbitzu pribatuan bakarrik aritzen dira (921-022 folioak). Horren guztiaren ondorioz, aseguru-etxeek 55 traumatologok¹⁶ eskaini ditzaketen zerbitzuetara jo lezakete, bai euren kontura bai kontratu-harremanaren bitartez lotuta dituzten beste batzuen kontura, esaterako euren langileak dituzten ospitale-zentroen kontura.

¹¹ Iturria: EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0000000/ti_Asistentzia_mediko-farmazeutikoko_aseguru_libreko_entitateak_Ezaugarri_nagusiak_2008/tbl0000074_e.html

¹² Iturria: ICEA: El mercado de los Seguros por Provincias. Estadística Año 2007. (136. orrialdea). Osasun-ordeztagaitasuna: Sektorearen % 91. Ez da LagunAro eta Aresari buruzko daturik agertzen.

¹³ Osasun-laguntzarako aseguruaren kontsumitzaileen eskaria hurbileko arretara bideratzen da, joan-entzietarako kostua eta denbora ahalik eta txikiak izan daitezkeen.

¹⁴ Iturria: Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofiziala, (930-934 folioak). 18 medikuko deskoadratzea dago (110-92) elkargoko kide diren traumatologoei buruz GiSEOk emandako banakatutako datuekin alderatuz. Horren arrazoia izan liteke, besteak beste, aholkularitza, zuzendaritza mediko, kontrol edo ikuskaritza lanak egiten dituztela erakunde publiko edo pribatuetan (GiSEOren estatutuak, 49.2 art.), edo ez jarduneko edo ohorezko kideak direla (GiSEOren estatutuak, 54. art.).

¹⁵ Kopuru horren barruan daude Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak zerbitzuak osasun-sistema publikoaren bitartez bakarrik ematen dituztenen zerrendan azaltzen dituen 37ak.

¹⁶ 73-37+19: Zentro publiko eta pribatuetan lan egiten duten 73 traumatologo kideak, ken zentro publikoan bakarrik lan egiten duten 37 kideak gehi zentro pribatuan bakarrik lan egiten duten 19ak.



Elkartek 41 kide ditu^{17 18}, hau da, elkargoko kide diren 55 medikuen % 75, eta horiengana jo daiteke traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoak eskuratzeko Gipuzkoan aseguru medikoen eremuan.

41 kide horietako batzuk¹⁹, 9 elkarteak adierazi duenaren arabera, ospitale-zerbitzu bati lotuta daude kontratu bidez (C.S.V. Pilar, Quirón), eta Elkartearen printzipioei atxikitzeak honakoak eragin litzake: ospitale-zentro horiekin dituzten kontratuak haustea, zentro horiek ematen dituzten zerbitzuak mugatzea, edo —gertatu zen bezala— zenbait jarduera aztertzea (aseguru-etxeen eta traumatologoaren arteko bitartekaritza, koadro medikoaren alternatibak²⁰, beste negoziazio batzuk aseguru-etxeekin...). Nolanahi ere, presio-elementua izan litezke ospitale-zentroen bitartez, larri baitaude, zerbitzuak eman behar dizkietelako aseguru-etxeei —sarrera-iturria— eta arriskuan ipintzen dutelako traumatologiako koadro medikoen egonkortasuna.

Ospitale-zentroi lotuta dauden eta zerbitzuak nahitaez zentro horien bitartez eman behar dituzten 9 traumatologo horiek kenduta, 32 dira geratzen diren traumatologoak (guztizkoaren % 58). Horiek, Elkarteak azaldutako baldintzak onartu ezean, aseguru-etxeen koadro medikoetatik kanpo geratzen dira, eta aseguru-etxeek mugatuta dituzte euren koadro medikoak osatzeko aukerak. Horrenbestez, ez dira hain erakargarriak aseguratuak izan litezkeenentzat, eta aseguratu batzuek baja har dezakete, medikuaren eta pazientearen artean ezartzen den harreman pertsonalaren ondorioz. Horrelako kasuetan, aseguratuak aukera du bere ohiko traumatologoari uko egiteko eta beste profesional bat hautatzeko, edo aseguru-etxe horretan baja hartu eta profesional hori duen beste aseguru-etxe batean aseguratzeko, edo traumatologo horrengana modu pribatuan joateko, inolako asegururik gabe.

¹⁷ Elkartearen kideen zerrenda azaltzen duen 2007ko azaroaren 2ko jakinarazpenean Miguel Zabaleta Urmenteta ere azaltzen da, 42. kidea (240, 317 folioak), baina ez da azaltzen 2007ko azaroaren 30eko jakinarazpenean adierazi zen ondorengo zerrendan (204, 314, 370 folioak), ez eta 2007ko abenduaren 26an *Diario Vasco* egunkarian argitaratu zen iragarkian ere, azken horretan José Barnés Ros ere ez dela azaltzen.

¹⁸ 2007ko urriaren 1eko gutunean honela azaltzen dira: [...] medikuntza pribatuaren eremuan zerbitzuak osasun-laguntzarako eta osasunerako erakunde pribatuertako ematen dituzten kirurgia ortopediko eta traumatologiako espezialista guztiak [...]

¹⁹ Elkarteak adierazi du 9 direla klinikekin zuzeneko lotura duten traumatologoak (1063 folioa). Quirón Centro Hospitalario klinikaren kasuan, Ricardo Cuellar, Gaspar de la Herran, M^a Pilar Etxabe eta Juan Ponte izango lirake (951 folioa), nahiz eta Elkarteari bidalitako idazki batean, Quirón zentroak esan zuen 5 direla Elkarteko kide diren bere koadroetako traumatologoak (226 folioa). C.S.V. Pilar zentroak, aldiz, zentroan Ignacio Olavarria, Javier Revuelta, Lourdes Lluís Planella, José Luis Sevillano, J. Ignacio Querejeta, Javier de la Fuente, Carlos Pérez, Jesús Larráz del Arco eta Juan Calvo medikuek lan egin zutela adierazi du, kontratu-modalitatea zehaztu gabe. Horietatik, Juan Calvok ez dio utzi arreta emateari (914 folioa). Poliklinikak adierazi du bere plantillan ez dagoela lan-harremanen bat duen traumatologorik (966 folioa).

²⁰ Quirón zentroak enplegu-eskaintza argitaratu zuen SECOTen postontzian (224, 454 folioak).



Beste alde batetik, Elkarteak, alegazioetan (1063 folioa), 6 traumatologok baja eman zutela adierazi zuen arren, gertakari hori ez da agertzen, ez zuzenean ez zeharka, espedientearen dauden agirietan.

Halaber, traumatologiaren espezialitatea oso erakargarria da egon litekeen eskarirako. Izan ere, asistentzia ambulatorioko jarduerari dagokionez, espezialitate hori da eskari gehien duena EAEko osasun-laguntzarako aseguruaren kasuan²¹. 2007. urtean, aseguratuak 1.285.385 kontsulta mediko egin zituzten guztira, eta honakoak izan ziren espezialitate ohikoenak²²: traumatologia (% 12,12), tokoginekologia (% 10,81), pediatria (% 10,56) eta oftalmologia (% 9,69). Ospitale-asistentziako jarduerari dagokionez²³, traumatologiari dagozkio ospitale-sarreraren % 10,49²⁴, egonaldien % 11,56²⁵ eta kirurgia-ebaketaren % 13,99²⁶.

Amaitzeko adierazi behar da 2007. urtean indarrean zeuden tarifen gaineko igoeraren batezbestekoa²⁷, traumatologoen eskatu zutena²⁸, % 60 (1. kontsulta) eta % 173 (7. taldeari dagozkion jarduerak) bitartekoa dela (234 folioa), ospitalean dauden baina kirurgiarik behar ez dutenak kontuan hartu gabe.

Elkarteak jarduerak egin aurretik indarrean zeuden baremoak adierazi dira jarraian. Hona hemen:

	DKV	ASISA	ARESA	IPRESA*	FIATC**
URTEA	2006	2007	2008	2007	2007
KONTSULTA	17,51	20,54	12,00	15,96	18,10
AZTERKETA	9,56	8,22	12,00	8,68	18,10
1. TALDEA	16,82	38,75	35,30	40,95	***
2. TALDEA	43,74	56,84	63,30	73,58	***

²¹ http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0005300/not0005300_e.html

²²

http://eu.eustat.es/bancopx/Dialog/varval.asp?ma=PXesl07&ti=Asistentzia+ambulatorioko+jarduera%2C+espezialitaren+eta+kontsulta-ordenaren+arabera&path=../euskara/Gizartea/Osasun+saila/Asistentzia+mediko-farmazeutikoko+aseguru+libreko+entitateak/&lang=2&idTema=TEMA_0

²³

http://eu.eustat.es/bancopx/Dialog/varval.asp?ma=PXesl08&ti=Ospitale-asistentziako+jarduera%2C+espezialitatearen+eta+kontzeptuaren+arabera&path=../euskara/Gizartea/Osasun+saila/Asistentzia+mediko-farmazeutikoko+aseguru+libreko+entitateak/&lang=2&idTema=TEMA_0

²⁴ Kirurgia orokorra: % 12,78, ginekologia: % 8,84 eta oftalmologia: % 8,42.

²⁵ Kirurgia orokorra: % 17,09, ginekologia: % 9,08 eta oftalmologia: % 3,10.

²⁶ Kirurgia orokorra: % 22,24, ginekologia: % 13,04 eta oftalmologia: % 14,45.

²⁷ Quirón klinikaren kalkuluen arabera, eta aseguru-etxeek ordaindutako batezbestekoa kontuan hartuta. Salbuespen bi daude, batezbesteko handiagoak dituztenak.

²⁸ 2007ko urriaren 1eko eta 2007ko azaroaren 2ko jakinarazpenetan.



3. TALDEA	92,56	102,93	110,78	126,07	***
4. TALDEA	130,7	162,94	185,47	215,29	***
5. TALDEA	206,92	292,5	318,50	369,65	***
6. TALDEA	370,23		565,36	682,47	***
7. TALDEA	598,95	773,5	770,97	930,65	***
8. TALDEA	925,61	910	873,77	1054,73	***
ITURRIA: FOLIOAK	609	380-393	238	118-145	246-250
*GUTXI GORABEHARAKOAK: KONTZEPTUAK BESTELA DAUDE ANTOLATUTA					
** FIATCren 2008ko PROPOSAMENETIK ESKURATUTAKO BAREMOAK (% 32,60 IGOTZEA 2007koarekin ALDERATUTA)					
***KONTZEPTUAK EZ DATOZ BAT BESTE ASEGURU-ETXE BATZUENEKIN					

Elkarteak negoziazioak egin ditu gutxienez 10 aseguru-enpresarekin (458-468 folioak).

58. Aldez aurreko gaiak.

Aldez aurretik, LDEZk zehapen-prozeduran egin dituen eta Elkarteak zehapen-prozeduran zalantzan ipini dituen (bai Gertakarien berri zehazki ematen duen agiriari aurkeztutako alegazioetan bai ebazpen-proposamenari aurkeztutako alegazioetan) instrukzio-izapideak legearen arabera diren aztertu behar da. Aldez aurreko gai horiek aztertzean, frogatutakotzat aitortutako gertakariak lehiari buruzko araudiarekin egiaztatu beharko ditu LDEA honek. Azterketa hori, hala ere, behar baino lehenagokoa eta aldez aurretikakoa baino ez da izango, aldez aurreko gaiak aztertzeari dagokionez. Aurrerago azalduko diren zuzenbideko oinarrietan garatuko da zehatzago.

Aipatutako Elkarteak adierazi du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea urra lezakeelako bere kontra ireki den zehapen-prozeduraren instrukzio-fasean babesgabetasun-egoeran ipini zaiola, Espainiako Konstituzioaren 24. artikularen kontra eginez. Hain zuzen ere, elkartearen legeko ordezkariak hainbat aldiz adierazi du bere kontra ireki den zehapen-prozedura jazarpeneko, iraingarria eta bidegabekoa dela medikuentzat (1188, 1201, 1218, 1222 eta 1223 folioak eta beste batzuk), eta prozedura horretan hautsi egin da tipikotasun-printzipioa (1187 folioa). Aipatutako Elkarteak adierazi du, halaber, LDEZk bere kontrako zehapen-prozedura ireki duela aseguru-erakunde pribatuek inolako salaketarik egin gabe. Bereziki nabarmendu du instruktoreak lehiaren defentsari buruzko zehapen-prozeduraren ebazpen-fasearen aurreko fasean izan duen jardura. Izan ere, instruktorearen jardura, kasurik onenean, alderdikoa izan dela adierazi du (1177 eta 1187 folioak).



Ondoren, zehapen-prozeduraren instrukzio-fasea izapidetzeari buruz elkarteak zalantzan ipini dituen gai prozesalak aztertu dira. Azterketa egiteko, honako kontzeptu hauek hartuko dira kontuan: Akusazio-printzipioa urratzea; Elkartearen partaidetza zehapen-prozeduran eta babesgabetasuna; Tipikotasun-printzipioa urratzea zehapen-prozedura administratiboaren instrukzioan; Instruktoarearen alderdikeria.

57.1.- Akusazio-printzipioa urratzea.

Administrazioaren zehapen-ahalmena, Estatuaren zigor-antolamenduaren adierazpena da. Konstituzioaren 25. artikulua dioen bezala, herri-administrazioak mugatuta dauka administrazio-ahalmen hori erabiltzeko aukera, administrazio-zehapen eta arau-hausteei legezketasun-printzipioa bete behar dutelako, Konstituzioaren 24. artikulua bermatzen duen erabat bermatutako prozesua eta babes judizial eragingarria izateko eskubideari lotuta, eskubide subjektibo honen aitortzan islatzen dena: inori ezin zaio zehapenik ezarri legez aurreikusitako kasuetan ez bada, eta zehapen-eskumen hori legez esleituta duten administrazio-agintaritzek ezarri ez badute, defentsarako eskubidea, akusazioaren berri izateko eskubidea eta errugabetasun-presuntzioaren eskubidea guztiz zaintzen dituen prozedura baten bitartez.

Interes orokorreko helburuak lortzeko administrazio-jarduera biltzen duen egintza-multzoaren bide formala da administrazio-prozedura. Zehapen-prozedura administratiboa mota berezia da administrazio-prozeduren artean; bertan, administratuaren eremu juridikoa kargatuta egon daiteke eta, horrenbestez, eragindako herritarren bermeak sendotuta daude. Lehiaren Defentsari buruzko Legeak arautzen duen zehapen-prozedurari dagokionez, Auzitegi Gorenak 2007ko otsailaren 27ko epaian adierazi zuen administrazioaren zehapen-prozedurak ez daudela zigor-prozeduretan eskatzen diren berme guztiei, zorrotzeneri, lotuta. Hori dela eta, esaterako, ez dira akusazio-printzipioaren ondorio guztiak aplikatu behar, ez frogak azaltzeari dagokionez ez eta gertakarien kalifikazioari dagokionez ere.

Lehia arloko zehapen-prozedura ofizioz irekitzen du LDEZk, Lehiaren Defentsari buruzko 49. artikuluan eta zortzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraituz, bai salaketa baten ondorioz eta bai ofizioz, LDEZren edo LDEAren ekimenez. LDEZk zehapen-prozedura bat ireki ahal izateko ez da beharrezkoa salaketa formala egotea, nahikoa da lehiaren defentsari buruzko araudia urra lezaketen gertakariak egon izanaren berri izatea horien ustezko arduradunen kontrako zehapen-prozedura ireki dezan. Gauzak horrela, ezin da bat etorri Elkarteak adierazitako errugabetze-argudioarekin, bere kontra irekitako zehapen-prozedura jazarpenezko eta iraingarritzat hartu duenean, bai eta alderdikoitzat ere instruktoarearen ikuspegitik, inolako salaketarik egon



gabe hasi delako. Ez da beharrezkoa. LDEZk zehapen-prozedura irekiko du lehiari buruzko araudia urra dezaketen gertakarien berri duenean, Espainiako Konstituzioaren 9.1 artikulua arabera bete behar duen legezotasun-printzipioa betetz. Lehiaren defentsaren arloan, jokoan dauden interes publikoen babesak legitimatu egiten du, legeen arabera, lehia askea zaintzeko ardura duten administrazio-erakundeen jarduera.

Aztertzen gabiltzan kasuan, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren (LDEZ) 2009ko urtarrilaren 19ko ebazpenak (horren bitartez zehapen-espedita ireki zen Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartearen kontra) dio, alde batetik, hirugarren aurrekarian, egiaztatu egin dela Elkarteak, besteak beste, 2007ko azaroaren 2ko idazki bana bidali zela Gipuzkoan ezarrita dauden osasun-laguntzarako aseguru-erakundeei, eta bertan adierazi zuela bidalitako ordainsariak gutxienekoak zirela erakunde guztientzat eta 2008ko urtarrilaren 1erako ezarrita egon behar zirela [...]. Zuzenbideko Oinarrietako bigarrenaren bitartez adierazi da, aipatutako informazio erreserbatua egin ondoren, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea hautsi izanaren arrazoizko zantzuak azaldu direla. Hori dela eta, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartearen kontra Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluetan debekatutako jokabideengatik zehapen-espedita irekiko dela ebatzi du.

Horrenbestez, aztertzen gabiltzan kasuan, baztertu egin behar da aipatutako Elkartearen kontra zehapen-prozedura administratibo iraingarri eta jazarpenezkoa egin izanaren ideia. LDEZren aipatutako ebazpenean adierazi ziren Lehiaren Defentsari buruzko Legea hautsi izanaren arrazoizko zantzuak oinarri hartuta ireki du LDEZk zehapen-prozedura.

Beraz, azaldutakoa kontuan hartuta, inola ere ez da akusazio-printzipioa hautsi aipatutako elkartearen kontra ireki den zehapen-prozeduraren instrukzioan. Izan ere, lehia-agintaritzeari dagokionez lehiaren defentsari buruzko legeria betetzen dela eta aplikatu egiten dela zaintzea, bai eta, araututako arau-hausteren bat egin litekeela ohartuz gero, legeria horretan aurreikusitakoaren arabera zehapen-ahalmena erabiltzea ere.

Era berean, ezin da ados egon Elkartearekin akusazio-printzipioa urratzeari buruzko errugabetze-argudioari dagokionez, alderantzikatu egin baita herri-administrazioari dagokion arau-haustea egiten duten gertakarien frogaren karga.

Horri dagokionez berriro esan behar da lehiaren defentsaren arloko interes publikoen babesak legitimatu egiten duela lehia askea zaintzeko ardura duten administrazio-erakundeen jarduera. Horretarako, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 39. artikuluan ezarritakoari



jarraituz, pertsona fisiko edo juridiko orok lankidetzaz eskaini beharko dio Lehia Agintaritzari, eta horrek eskatuz gero, esku artean dituzten datuak eta informazio guztia eman beharko diote, Lehiaren Defentsari buruzko Legeak dioena ezartzeko beharrekoa baldin bada. Hala ere, horrek ez du esan nahi frogaren karga alderantzikatuko denik ez errugabetasun-presuntzioaren printzipioa urratu denik. Beraz, Elkarteari informazioa eskatzeak eta zehapen-prozeduran datuak eta informazioa emateak ez du esan nahi lehia-agintaritzak frogaren karga alderantzikatu duenik, baizik eta, aldiz, legeak lehia-agintaritzari ezarritako lege-betebehar bat bete duela eta, era berean, Elkartek, lehia-agintaritzak eskatuta, zehapen-prozedura administratiboan Lehiaren Defentsari buruzko Legea aplikatzeko beharrezko informazio eta datuak emateko beharra bete duela. Horrenbestez, ez da onartu behar Elkartek azaldutako argudioa, hau da, prozeduran frogaren karga alderantzikatu dela eta, ondorioz, akusazio-printzipioa urratu dela adierazten duena.

57.2.- Elkartearen partaidetza zehapen-prozeduran eta babesgabetasuna.

Elkartek froga bidez izan du LDEZk egindako administrazio-jarduera guztien berri, zehapen-prozedura irekitzeko ebazpenetik hasi (Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onetsi zuen 261/2008 Errege Dekretuaren 28. artikuluan ezarritako legezko betekizunak biltzen dituena), Gertakarien berri zehazki ematen duen agiriarekin jarraitu, eta ebazpen-proposamenarekin amaitu arte. Halaber, Gertakarien berri zehazki ematen duen agiriak eta ebazpen-proposamenak, aipatutako Erregelamenduaren 33 eta 34. artikuluetan ezarritako legezko betekizunak betetzen dituzte.

Izapide-egintza administratibo horiei dagokionez, lehiaren defentsaren alorreko lege berezietan aurreikusita dauden defentsa-bideak erabili ditu aipatutako elkartek, egokituz jo dituen alegazioak eginez eta defentsarako beharrezko agiriak aurkeztuz, bai Gertakarien berri zehazki ematen duen agiriaren fasean (1034-1071 folioak) eta bai ebazpen-proposamenaren fasean ere (1034-1071 folioak). Era berean, ahozko ikustaldia egiteko eta froga egiteko eskatu zuen.

Eskatutako frogari dagokionez, instruktoreak 2009ko otsailaren 4an emandako probidentziaren bitartez, besteak beste, honakoak eskatu zizkion Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialari: Medikuntza eta Kirurgian (Traumatologia espezialitatean) lizentziatu eta doktoratuen zerrenda, eta Elkargo horretako kideak, Elkargo horretan "jarduneko" gisa erregistratuta daudenak, eremu publikoan bakarrik lan egiten duten eta lanean 2007. urtearen ondoren hasi diren zehaztuz. Halaber, 2009ko martxoaren 2an, Frogak zati batean onartzeko probidentzia eman zuen zehapen-prozeduraren instruktoreak eta, bertan, eskatutako frogak egitea zati batean onartuko dela erabaki zen. Probidentzia horretan ohararazi zen idatziz egingo zirela frogak, eta Elkartek, alde aurretik,



egin nahi zituen galderen agiria aurkeztu beharko ziola instruktoreari. Probidentzia Elkarteari jakinarazi zitzaion, baina Elkarteak ez zuen galderen agiririk aurkeztu.

Azkenik, ebazpen-proposamenari egindako alegazioetan eskatutako frogari dagokionez (berriro eskatu ziren Elkarteak 2009ko otsailaren 9an eta azaroaren 25ean eskatutakoak, eta berriro eskatu ziren LDEA honek eskatutako frogari egindako alegazioetan), Auzitegi honek horri buruzko probidentzia eman zuen 2010eko abuztuaren 4an. Bertan, uko egin zion aipatutako froga egiteari, LDEA honek uste baitu ez dela beharrezkoa Elkarteak eskatutako frogak egitea. Are gehiago, berriro esan du, ikertzen ari diren salatutako gertakariei dagokionez, jardueretan dauden agiriek eta LDEZk egindako frogek iritzi-elementu nahikoak eskaintzen dituztela salatutako jardunbideak lehiari buruzko arauekin bateragarriak diren balioesteko.

Ahozko ikustaldia egiteko eskaerari dagokionez, agiri honetako Zuzenbideko Oinarrietako 55.ean adierazi den bezala, LDEA honek, espedientean dauden agiriak ikusita, ez du uste beharrezkoa denik ikustaldia egitea, administrazio-espedienteak beharrezko elementuak dituelako lehiari buruzko araudia urra lezaketen gertakariei buruz LDEA honek duen asmoa eratzeko.

57.3.- Tipikotasun-printzipioa urratzea.

Gure antolamendu juridikoan arau-hauste eta zehapenen tipikotasun-printzipioa ezartzeko ezinbestekoa da antijuridikotzat jo daitezkeen eta, ondorioz, arau-haustea diren jokabide edo ez-egiteen mugaketa egotea, bai eta arau-hauste horiei dagozkien zehapenena ere. Tipikotasuna berariazko jokabide baten lege-deskribapena da, eta horrek administrazio-zehapen bat izango du ezarrita. Horrela bada, Espainiako Konstituzioaren 25. artikulua dioenez, *ezin dakioker inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezar, baldin eta, une horretan [...] arau-hauste administratiboak ez badira, aldi horretan indarrean dagoen legeriaren arabera*. Konstituzioarekin bat etorrita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen alorrean indarrean dagoen 30/1992 Legeak, honakoa dio tipikotasun-printzipioari buruzko 129. artikuluan: *Administrazioko arau-hauste dira, bakar-bakarrik, legediaren aurkakoak izanik, legeren batean arau-haustetzat jotzen direnak, eta Administrazioko arau-hausteen ondorioz bakarrik ezar daitezke zehapenak; zehapen horiek, beti ere, lege bidez zehaztuko dira*.

Lehiaren defentsari buruzko eremu zehatzagoan, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak lehenengo hiru artikuluetan definitzen ditu lehiaren eremuan debekatutako jokabideak: *Kolusiozko jarrerak* (1.



artikulua), *Nagusitasunezko posizioaren abusua* (2. artikulua), eta *Lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea* (3. artikulua).

Kolusiozko jokabideei dagokienez, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua debeku orokorra ezartzen du lehiaren kontrako akordio eta erabakietarako. Ondoren, bost ataletan, lehiaren kontrako akordioaren kasuak identifikatzen ditu, adibideak emanez, baina ez da debekatuta dauden jokabideen zerrenda zehatz eta mugatzailea. Kolusiozko jokabideak deskribatzeko erabili den teknika bera erabili da nagusitasunezko egoeraren abusua deskribatzeko. Deskribapen orokorra azaltzen da lehenengo, eta gero zerrenda batean azaltzen dira nagusitasunezko egoeraren abusua islatzen duten kasuak. Zerrenda hori, hala ere, ez da zorrotza, adibidez adierazitakoa baizik. Horixe adierazi du Auzitegi Gorenak, behin eta berriro, Lehiaren Defentsari buruzko 16/1989 Legearen artikulua baliokideei buruz (antzera dago idatzita indarrean dagoen 15/2007 Legearen), 2003ko ekainaren 9ko, 2004ko abenduaren 13ko eta 2006ko apirilaren 4ko epaien bitartez.

Aztertzen gabiltzan kasuan, LDEZk zehapen-prozedura ireki zuen aipatutako Elkartearen kontra lehiari buruzko araudia urratu izanaren arrazoizko zantzuak ikusi zituelako aztertutako gertakarietan, hain zuzen ere, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. eta 2. artikulua urratu ahal izan zirela ikusi zuen. Zehapen-prozeduraren instrukzioa garatu bitartean, Gertakarien berri zehazki ematen duen agirian bertan, instruktoreak adierazi zuen aztertutako jokabideak, frogatutakotzat hartzen dituenak, lehia murrizten duten jardunbideak direla:

1. LDLren 1.1 artikuluaekin bat etorrira, Elkartea eratzeko akordioa egin da, besteak beste honako helburua duena: errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datozen ordainsari-baremoak ezartzea.
2. LDLren 1.1.a artikuluaekin bat etorrira, Gipuzkoan emandako zerbitzu medikoetarako ordainsariak ezartzeko erabakia kolektiboa hartu zuten Elkarteko 41 traumatologok, Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Erakundearen bitartez.
3. LDLren 1.1 artikuluaekin bat etorrira, boikota egin zen, Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Gipuzkoako Erakundeak behartzeko erabakitako ordainsariak onartzera, edo horiek negoziatzera, eta 2007ko urriaren 1eko gutuna bidali aurretik aseguru-etxeetako koadro medikoak osatzen zituzten traumatologoak mantentzera.

Instruktoreak zehapen-prozeduraren tramitazioan egindako ebazpen-proposamenean arestian azaldutako kalifikazioa mantentzen da. Izan ere, Kalifikazio Juridikoa izeneko atalaren lehenengo puntuan dio instrukzioan aztertutako jokabideak 1.1 artikuluan tipifikatutako debekatutako jardunbideen artean daudela eta, hain zuzen ere, atal honetako artean:
a) *Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.*



Azaldutako guztia kontuan hartuta, inola ere ezin dugu ados egon Elkartearekin instrukzioan tipikotasun-printzipioa hautsi dela dioenean, LDEZK zehapen-prozeduran frogatutakotzat hartutako jokabideak zehatz eta berariaz sartzen baitira LDLk debekatutako kolusiozko jokabideen artean.

Horrela, zehapen-prozeduraren instrukzioan ez da inolako arau-hausterik ikusi aplikatutako arauaren identifikazioan, instruktoreak argi zehaztu baititu arau-haustea eragiten dituzten jokabideak, bai eta aipatutako Elkarteari zehapena ipintzea proposatzea eragin duen arau-haustea tipifikatzen duen agindua ere, hau da, LDLren 1. artikulua. Zehaztasun hori, Gertakarien berri zehazki ematen duen agirian azaltzeaz gain, ebazpen-proposamenean ere azaldu du. Beraz, horri dagokionez, inola ere ezin da esan instrukzio-fasean tipikotasun-printzipioa urratu denik eta, ondorioz, argudio hori ez da onartu behar.

57.4.- Instruktoareen alderdikeria.

Elkarte interesdunaren legeko ordezkariak adierazi du instruktoreak jarrera alderdikoia izan duela zehapen-prozedura garatzean. Elkartek adierazi du instruktoreak garrantzi handiagoa ematen diela medikuei kalte egin diezaieketen gertakariei, horien jokabidea baretu dezaketenei baino.

Horri dagokionez, komenigarria da honakoa adieraztea: Elkartearen legeko ordezkariak, zehapen-prozeduraren izapidetzea egin bitartean, inoiz ere ez du adierazi Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 29. artikulua arabera instruktorea errefusatzea eragin lezakeen arrazoietakoren bat.

Gainera, aldez aurreko gaiei buruzko puntu honetan ondorioztatu den bezala, instruktorearen jardueraren helburua gertakariak zehaztea, lehiari buruzko arauarekin erkatzea eta, hori guztia oinarri hartuta, LDEAri ebazpen-proposamena egitea izan da. LDEA honi ebazteko azaldu zaion espedienteaz aztertuta ondorioztatu da instruktorearen lana bat datorrela lege prozesalekin eta oinarriak dituela lehiaren defentsari buruzko alorrean. Hala ere, Elkarte interesduna, defentsaren zilegizko eskubidea erabiliz, ez dago ados frogatutakotzat hartutako gertakariekin eta lehiaren defentsari buruzko araudiari jarraituz eman zaien kalifikazioarekin. Hori dela eta, LDEA honek ezin du onartu instruktoreak, zehapen-prozeduraren instrukzio-fasea izapidetu bitartean alderdikeriaz jokatu duela dioen alegazioa.

59. Traumatologoek elkartea eratzeko akordioa.



58.1.- LDLren 1.1 a) artikulua hauts lezakeen lehenengo jokabideari dagokionez, LDEZk proposamenean adierazi du Elkarteak eraketan erabaki zuela, bere jarduerak bideratuko zituzten helburuen artean *errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datozen ordainsari-baremoak ezartzea*²⁹ egongo zela. Helburu hori, berez, lehiaren kontrako jardunbidea da, bere xedea Gipuzkoako aseguru medikoaren eremuan traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoen merkatu adierazgarrian lehia eragotzi eta murriztea baita..

Horri dagokionez, Elkarteak adierazi du bere helburu nagusia elkartean askatasunez sartu diren medikuen interes profesionalak defendatzea dela. Ordainsari-baremoak ezartzea Elkarteak bere kideen interesak defendatzeko duen helburu edo bitartekoetako bat da, eta Elkartearen ustez Elkargoaren helburuak eta betebeharrak arautzen dituen Elkargoaren estatutuen 6. artikulua araberago dago babestuta. Izan ere, artikulua horrek baimena ematen du gutxi gorabeherako ordainsariak zehazteko, eta aseguru libreko erakundeekin eztabaidatzeko. Elkarteak uste du Legeak eta Estatutuek Elkargoari aitortzen dioten zeregin hori Elkarteari eskuordetu ahal diola Batzordeak eta, horrela, legitimatu egingo litzatekeela baremoak ezartzean izan duen jarduerara.

LDEA ez dator bat Elkartearen ordezkartzan ondorioztatutako errugabetze-argudioarekin, jarraian azalduko diren iritziak direla eta.

LDEAk adierazi behar du 2007ko irailaren 17an eratu zela aipatutako Elkartea eta, ondorioz, bere estatutuak onartu eta zuzendaritza-organoa izendatu zela. Egun horretan bertan, Xanti hoteleko areto batean batzartu ziren Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkarteentzat zerbitzuak ematen dituzten traumatologia eta kirurgia ortopedikoko mediku espezialistak, deialdia jaso ostean. 43 mediku espezialista agertu ziren. Elkarteak emandako dokumentaziotik (500. folioa) ondorioztatutakoaren arabera, elkartea eratzeko akordioa hartu aurretik, deialdia egin zutenek problematika ekonomiko eta soziala azaldu zuten, hau da, aseguru-etxe gehienek azken zortzi urteetan eguneratu gabeko baremoen blokeoa duten profesionalak, bizi-kostuaren indizearekin handitu gabekoren bat, barematu beharreko kontzeptu medikoen definizio eskasa, eta bestelako hutsune batzuk.

Azaldu zen problematika profesionala kontuan hartuta, bertaratu ziren edo ordezkartza bidali zuten 43 mediku espezialistetatik 41ek *Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkartea* eratu zuten, interesak defendatu eta lanbidea duin egitearren eta, besteak beste, errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datozen ordainsari-baremoak ezartzearen. Helburu horrek lehentasuna du helburu sozialen artean, horixe izan baita Elkartea eratzeko batzarra eragin duena.

²⁹ Estatutuen 2. artikulua.



Bada, elkartearen lehenengo akordioa ordainsari-baremoa ezartzeko erabakia izan zen, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoari eta aseguru-erakundeei aurkezteko, eta hartutako akordioen berri ematen zuen gutuna bidaltzea.

LDLren 1.1 artikulua debekatu egiten du *taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki-motak egongo dira debekatuta: a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.*

Auzitegi Nazionalaren 1998ko azaroaren 2ko epaiak eta beste batzuek ezarritakoaren arabera, lehiari buruzko arauak hautsi direla ondorioztatzen nahikoa izango da akordioak, adierazitakoa nahiz isilekoa izan, edo hitzartutako jardunbideak, hiru premisa hauetako bat betetzea: a) bere "helburua" lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea izatea, lortu ez arren; b) "eragin" hori izatea, nahiz eta helburua hori ez izan, eta c) "eragin" hori izan gabe, eta hori lortu nahi izan gabe, horretarako "gaitasuna" izatea.

Auzitegi Gorenaren 2008ko martxoaren 4ko epaiak, besteak beste adierazi du kolusiozko ituna egitea, lehian eraginak dituzenez, inkardinaezina dela LDLren 1. artikuluan, nahikoa baita lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzeko eragina izan edo izan ahal izatea.

EAEko Auzitegi Nagusiaren 2010eko uztailaren 30eko epaiak adierazi zuen prezioak zuzenean edo zeharka ezartzearen bidegabekeria definitzen duen oharrari, ekonomia- edo merkataritza-lehia askearen gaineko eragin, benetako edo potentzialaren, funtsezko alderdia gehitu behar zaiola –nahiz eta ez nahita bilatu–. Beraz, elementu biak batera hartu beharko dira kontuan arau debekatzailerak hobetu dadin. Ez bakarrik alderdi objektibo eta formalari dagokionez, baizik eta emaitza kaltegarriari dagokionez ere –lehia aske horren arrisku hutsa sortzeari hazita–, eragileak nahita hartu zein ez.

Aztertzen gabiltzan kasuan, Elkarteak, besteak beste, *errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datozen ordainsari-baremoak ezartzeko helburuarekin* eratu zen³⁰. Helburu hori, berez, lehiaren kontrako jardunbidea da, bere xedea ordainsari-baremoak ezartzea baita, traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoen merkatu adierazgarrian lehia eragotzi eta murrizteko gaitasuna duela eta, beraz, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.a artikulua hausten du.

³⁰ Estatutuen 2. artikulua.



Horri dagokionez adierazi behar da merkatuko ekonomiaren erregimenetan, sistemaren oinarria den lehia-jokoak nahitaez eskatzen duela zerbitzuen eskaintzaileek modu autonomoan erabaki eta kontratatzea, berdin edo elkarrekin jarduteko inolako akordiorik gabe, bai akordio hori zuzenean eskaintzaileek hartu, bai kide diren elkarre bat erabili horretarako. Ez da ahaztu behar, dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak adierazi zuen bezala, *eragileen portaerari buruzko jarraibide kolektiboek eta hitzartutako jarduerak murriztu egiten dituztela lehia behar bezala hedatzeko beharrezko portaeraren kaudimen eta independentziaren oinarritzko printzipio horiek*³¹. Era berean, Audientzia Nazionalak dio³² *elkarrekin eratzeko eskubidea erabiltzean nahitaez errespetatu behar direla lehia askearen mugak eta, horrexegatik, errekurtsio-egileek ezin dituztela euren elkartekideak behartu, zuzenean ala zeharka, baterako jokabide bat egitera, horrek portaera homogeneoa eragingo lukeelako enpresa-politikaren zenbait erabaki hartzean. Horrelako jokabideak legezkoak izango dira, bakarrik, lege-maila nahikoa duen arau batek hala xedatzen duenean. Elkarrekin bere estatutuetan aurreikusita daukan eskumena, hau da, ordainsari-baremoak bere kideen interesen alde elkarrekin negoziatu ahal izateko daukan eskumena, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikuluan debekatutako egintzetako bat da. Izan ere, eskaintza kolektiboak jarduera independentea ordeztu duenez eta kontratu-baldintzak bateratu direnez, lehia mugatu egin da, lehia egoteko ezinbestekoa baita merkatuan dauden eragileek euren baldintzak modu autonomoan egitea eta eskaintza indibidualizatua izatea.*

58.2.- Hala eta guztiz ere, Lehiaren Defentsari buruzko Legeak berak, 4. artikuluan, legezko salbuespen bat ezartzen du 1. atalean: *Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei.*

LDEZk ebazpen-proposamenean adierazi duen bezala, Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeak, Lurzoruaren eta elkargo profesionalen gaineko zenbait gai liberalizatzeko neurriei buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legearen eguneratzean, honakoa dio 5.2 artikuluan: *“Elkargoen akordio, erabaki eta gomendioek, garrantzi ekonomikoa badute, kontuan hartu beharko dituzte Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 1. artikuluan adierazitako mugak. Hala ere, Elkargoek, lege horren 3. artikuluan aurreikusitako baimen berezia eskatu ahal izango dute. Salbuespena dira eta, beraz, ez dute baimen berezi hori behar izango, Sendagileen elkargo profesionalak, euren kideak ordezkatzuz, osasun laguntzarako aseguru libreko*

³¹ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 2000ko martxoaren 9ko ebazpena.

³² Audientzia Nazionalaren 2006ko maiatzaren 8ko epaia.



erakundeen ordezkariekin, zenbait zerbitzu emateari aplikatu beharreko ordainsariak zehazteko borondatez ezar litzaketen hitzarmenak.”

Horri dagokionez, Elkartearen legezko ordezkariak defentsa modura baliatu du Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak bermatu zuela Elkartearen eraketa, bere estatutuen 96. artikulua babestean eratu zelako, eta elkartearen jarduna Elkargoaren helburuak eta betebeharrak arautzen dituen Elkargoaren estatutuen 6. artikuluan dagoela babestuta, artikulua horrek baimena ematen baitu gutxi gorabeherako ordainsariak zehazteko, eta aseguru-erakundeekin eztabaidatzeko.

LDEA hau ez dago ados elkarteak ondorioztatutako errugabetze-argudioarekin, jarraian azalduko diren arrazoiak direla eta.

LDEA ez dator bat Elkartearen ordezkariak defentsarako azaldu duen alegazioarekin, hau da, Elkarte Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren Estatutuen 96. artikulua oinarri hartuta eratu zela dioen alegazioarekin.

Espainiako Konstituzioaren 9. artikulua dioenaren arabera, *herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude*. Gauzak horrela, Elkarte Espainiako Konstituzioaren 22. artikulua babestean (Elkarteko oinarriko eskubidea), Elkarteko eskubidea arautzeko 1/2002 Lege Organikoaren babestean, eta hori garatzen duen araudiaren babestean (pertsona juridiko gisa sortzea babesten duena) eratu da, eta inola ere elkargo profesional baten estatutu-arau baten aginduan. Elkartearen eraketaren antolamendu juridikoarekiko egokitzea ez dute ematen ez elkargo profesional baten estatutuek (zehatzago esanda Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Profesionalaren 96. artikulua), ez elkargo profesional horretako Zuzendaritza Batzordeak elkarte onartzeko hartutako erabakiak, baizik eta legean ezarritako baldintzak betetzeak.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren estatutuen 96. artikulua lehenengo atalean azaltzen duen gauza bakarra da Sendagileen Elkargo horrek onartu egiten dituela (halakorik egonez gero) *bere jurisdikzioan legez antolatutako elkargo eta taldeak, elkargo eta talde horiek bertan borondatez izena eman duten sendagileen interesak babesteko sortu badira*. Hau da, aipatutako elkargo profesionalak onartu egiten ditu sendagileek euren interes profesionalak defendatzeko eraturako elkarteak, betiere elkarteak legez ezarrita badaude. Onarpen horrek, hala ere, ez du pertsona juridiko hori sortzeko baldintza osagarriarik, eta legean ezarritako baldintzak betetzen baditu existituko da erakunde juridikoa.

Beraz, legez ezarritako baldintzak beteta sortu zen elkarte zuzenbidearen mundura eta, horrela, nortasun juridikoa eskuratu zuen, baina elkargo profesional batek onartzeak ez dio garrantzi juridiko edo onarpen handiagorik ematen zuzenbidearen munduan, eta horrekin ez ditu



zuzentzen antolamendu juridikoa hautsiz egin litzakeen egintzak, batez ere lehiaren defentsa arautzen duen araudiari dagokionez. Elkartearen helburuen artean Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua kontrako helburu bat dago, hau da, ordainsari profesionalak zehaztu edo ezartzeko helburua. Elkargo Profesionalaren Zuzendaritza Batzordeak, 2007ko urriaren 30ean, Elkarteak onartu zuen, baina horrek ez dio legezko izaerarik ematen lehiaren kontrako helburu horri, eta ez ditu zuzendu edo legeztatzen lehiari buruzko araudia hautsiz egin izan diren egintzak. Lehiaren alorreko arau-hauste administratiboa burututa dago.

Beste alde batetik, Elkartearen jarduna Gipuzkoako Elkargo Profesionalaren estatutuetako 6. artikulua babesten duela dioen errugabetze-argudioa ere ez da onartu behar. Gogoan izan behar da LDEZk lehiari buruzko araudiaren kontrakotzat hartzen dituen gertakariak Elkarteak lehiaren kontrako helburu batekin eratzea (hau da, ordainsari-baremoa ezartzea) eta gutxieneko ordainsarien baremoari buruzko akordioa hartzea (2007ko irailaren 17an) izan zirela.

Gertakariari dagokionez, babes hori egon ez dela ikusi dugu.

Aipatutako elkarteak 2007ko irailaren 17an Donostian egin zen batzarrera bertaratu ziren 43 medikutatik 41ek eratu zuten. Medikuek horiek Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Profesionaletik kanpo batzartu ziren. Elkargoko kide diren arren, ez dute legezko ordezkari gisa, eta ez dute Elkarteak eratzean parte hartzeko Elkargoko Zuzendaritza Batzordearen akordioa betetzen. Bertaratu zirenek eta ordezkari gisa bidali zutenek pertsona fisiko, traumatologian espezializatutako mediku eta Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuei zerbitzuak ematen dituzten medikuak ziren heinean hartu zuten parte 2007ko irailaren 17ko batzar horretan, Elkarteak eratu aurretik azaldu zen problematika bati ekiteko. Problematika hori, hain zuzen ere, honakoa da: baremoak blokeatu izana, azken zortzi urteetan aseguru-etxe gehienek eguneratu gabe, eta batzuek bizi-kostuaren indizearekin handitu gabe. Problematika azaldu ondoren, elkarteak eratzea erabaki zuten, euren interesak defendatzeko eta ordainsari-baremoak ezartzeko. Azken helburu horrek, azaldu den bezala, lehia murrizten du eta, ondorioz, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1.a artikulua urratzen du. Elkarteko kideek elkargo profesionaletik kanpo jardun zuten elkarteak eratzean, pertsona juridiko independentea eratuz borondatez elkartu ziren medikuentzako zenbait interes profesional defendatzeko. Gainera, Elkargo Profesionalak inoiz ez zuen parte hartu Elkartearen eraketan, eta are gehiago, ez zuen ezer jakin horri buruz. Kontuan izan behar da Elkarteak eratu zen egunean hartu ziren akordioaren artean Gipuzkoako Sendagileen Elkargoari Elkarteak eratu izanaren berri ematea azaltzen dela, "...legezta dadin eta egoitza izan dezan". Elkargoak 2007ko irailaren 25ean jakin zuen lehenengo aldiz Elkarteak eratu zela, A.R.R. jaunak orduan jakinarazi ziolako Elkargo Profesionaleko presidenteari Osasun Laguntzarako Erakunde



Pribatuetako Traumatologoaren Elkartearen eratu zela. Era berean, baimena eskatu zion Elkartearen egoitza Frantzia pasealekuko 12. zenbakiko etxabearen ezartzeko, hau da, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren egoitzan. Geroago eskatu zion Elkarteak Elkargo Profesionalari Elkargoaren estatutuen 96. artikulua babestean onartzeko, 2007ko urriaren 26an, hain zuzen ere.

Zuzenbidearen eremuan, Elkargo Profesionalak inola ere ezin du lehiaren araudiaren kontrako egintzarik egin. Elkargo profesional guztiak legearen eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen mende daude eta, hori dela eta, lehiari buruzko arauak bete behar dituzte. Lehiaren Batzorde Nazionalak, 2007ko abenduaren 27ko ebazpenean ere (635/07 espedientea, Las Palmasko Odontologo Estomatologoaren Elkargoa), honakoa ezarri zuen:

“Apirilaren 14ko 7/1997 Legeak, Zioen Azalpenean, aitortu egiten du elkargoetan antolatutako lanbideak lehia askearen araubideari lotuta daudela eta, ondorioz, lege horrek aldatu egiten ditu lehia mugatzen duten eta merkatu askeko ekonomia batean justifikatzeko zail diren profesionalen jarduerako zenbait alderdi. Ondorioz, honakoa dio 5. artikulua (Elkargo profesionalak arautzen zituen otsailaren 13ko aurreko 2/1974 Legearen 2.1 artikulua aldatzen duena): “Estatuak eta autonomia-erkidegoek, dagozkien eskumenen eremuan, bermatu egiten dute elkargoetan elkartutako lanbideak legeetan xedatutakoaren arabera garatuko direla. Elkargoetan elkartutako kideen jarduera lehia askearen araubidean egingo da, eta zerbitzuen eskaintzari eta horien ordainsariak ezartzeari dagokienez, Lehiaren Defentsari buruzko Legea eta Lehia Desleialari buruzko Legea bete beharko ditu [...]”. Beste 4. atal bat ezarri da 2. artikuluan, honakoa dioena: “Elkargoaren akordio, erabaki eta gomendioek, garrantzi ekonomikoa badute, kontuan hartu beharko dute Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 1. artikuluan adierazitako mugak”.

Apirilaren 14ko 7/1997 Legea onartu zenetik aurrera, inspiratu zuten printzipioen arabera (merkatu-ekonomia, prezioak askeak izan behar dira) onartu egiten da, oro har, elkargoetan antolatutako lanbideak lehia askearen araubideari lotuta daudela eta, ondorioz, ezabatu egiten da elkargo profesionalak gutxienezko ordainsariak ezartzeko zuten eskumena, gutxi gorabeherako ordainsari-baremoak baino ezin direla ezarri.

Printzipio eztabaidaezina ezarri da horrela: Elkargoetan antolatutako profesionalak zerbitzuak eskaini eta horien ordainsariak ezarri ahal izateko Lehiaren Defentsari buruzko Legea eta Lehia Desleialari buruzko Legea bete beharko dira. Horrekin lotuta, 7/1997 Legearen xedapen indargabetzaileak, beren-beregi dio “indargabetuta geratu direla lege horretan aurreikusitakoaren kontra egiten duten lege-arau eta administrazio-xedapen guztiak”.



Auzitegi Gorenak, 2010eko apirilaren 26ko epaian, honakoa adierazi zuen: “Elkargo Profesionalek, beraz, guztiz bete beharko dituzte Lehiaren Defentsari buruzko Legean eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiak —gaur egun Lehiaren Batzordeak— ezarritakoa, euren zereginak edozein direla ere, eta publikoak zein pribatuak izan.”

Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak Espainiako Konstituzioaren 9.1 artikulua araberako legezkotasun-printzipioa bete behar badu, inola ere ezin du lehiari buruzko araudiaren kontrako egintzarik egin, esaterako gutxieneko ordainsarien baremoa zehaztu, bestela lehiaren araudiak debekatutako kolusiozko egintza egingo baitu.

Aztertzen gabiltzan kasuan, Elkargo Profesionalak ez du izatez babestu Elkarteak gutxieneko ordainsarien baremoa ezartzeko izan duen egintza, baina, era berean, ezin da zuzenbidez egin, lehiari buruz indarrean dagoen araudiak debekatu egiten baitu. Are gehiago, Elkargo Profesionala bera bereizi egin da Elkarte Profesionalak ezarri zuen gutxieneko ordainsarien baremotik, ordainsari profesionalak gutxi gorabeherakoak izan behar direla esan zioenean.

58.3.- Elkarteak baremoak ezartzean, homogeneousatu egiten dira bertako kideak diren traumatologoen Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuen bitartez emandako zerbitzuen prezioak, bai zerbitzu profesionalak pertsona fisiko moduan ematen dituztenean, bai merkataritza-erakunde edo erakunde kooperatibo baten bitartez ematen dituztenean, hori guztia kontratu-harreman zibil edo merkataritzako kontratu-harremanen baten babespean. Ez da huskeria zerbitzuak Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuen bitartez ematen dituzten traumatologoen % 75ak parte hartzea Elkartearen eraketan, erakunde horiekin duten harreman juridikoa edozein dela ere (zuzenekoa edo zeharkakoa), baina ordainsari-baremoa ezartzeko xedearrekin, aseguru-etxeekin duten ordainsariak izoztu izanaren arazoa konpontzearen. Gainera, erabaki horrek indar hedagarria du, eta medikuen eta osasun-laguntzarako erakunde pribatuen artean egon litezkeen lan-harremanei ere eragiten die, medikuek elkarteak ezarritako baldintza ekonomiko onuragarriagoak ezarri ahal izan ditzaten. Ondorioz, enpresaren eta medikuaren arteko lan-harremana aldatzea, eta baita iraungitzea ere, eragin lezake horrek, horren orde kontratu zibil edo merkataritza-kontratuak sortuz. Ez da kasualitatea Elkarteak IPRESA, FIATC, ASISA, DKV eta ARESA aseguru-erakundeei jakinaraztea gutxieneko tarifen baremo berriak, 2007. urtean erreferentzia-merkatuaren % 62,73 baita gutxienez horien negozio-bolumena, kontuan hartu gabe kide bakoitzak Gipuzkoako aseguru medikoaren eremuan Osasun Laguntzarako Erakunde Pribatuekin duen harreman juridikoa.. Era berean, ezin da ahaztu 41 medikuek batera egin ziotela uko 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera IPRESA, FIATC eta ARESA aseguru-erakundeekin lan



egiteari. Helburua espezialista mediko horiek emandako zerbitzuen prezioa bateratzea zen, zerbitzuak Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuen bitartez ematen direnean.

Dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak 1995eko ekainaren 28ko ebazpenean (351/94 esp., Espainiako Tokoginekologoen Elkarteak) ezarri zuen prezioei buruzko akordioak direla, agian, lehiaren murrizketa zorrotzenak, prezioa baita operadoreek eskaintzak edo eskariak bereizteko begiratzen duten lehenengo elementua, eta nabarmenena. Era berean adierazi zuen ez lehiazteko akordioek eta eskatzaileen aurrean baterako jarrera hartzeko akordioek eragotzi egiten dutela eragin hori sortzea, eta merkatuaren jokotik ondorioztatutako neurritsuenak ez diren prezioak lortzen direla, modu artifizialean. Akordioa guztiz larria da.

Ordainsariak edo gutxieneko prezioak elkarrekin ezartzean lehiari buruzko arauak hausten dira, eta horrela aitortu izan da dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren edo egungo Lehiaren Batzorde Nazionalaren hainbat ebazpenetan, besteak beste honako hauetan: dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 2002ko irailaren 16ko ebazpena (528/01 esp., Abokatutzaren Kontseilu Nagusia), eta dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 2006ko ekainaren 18ko ebazpena (600/05 esp., Cuencako okindegiak). Halaber, aztertutako gertakariarekin lotuta dagoenez, dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Kataluniako Auzitegiaren ebazpen hau ere aipatu behar da: 12/06 espedientea, Kataluniako Tokoginekologoen Elkarteak.

Orobat, Audientzia Nazionalak, 1998ko apirilaren 2ko epaian, aurreko paragrafoan aipatu den dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 1995eko ekainaren 28ko ebazpena berrikustean, honakoa adierazi zuen laugarren oinarri juridikoan:

“Salak uste du prezioak ezartzeko akordioek nabarmen hondatzen dutela lehia askearen bilakaera arrunta, eta ondorioz baldintza ekonomiko desberdinak aplikatzen zaizkiela zerbitzu baliokideei, lehiakide batzuk — Traumatologoen elkarteko kide ez direnak— desabantailan ipinita beste batzuekin —kide direnekin— alderatuz, gutxienez teoriarik, ñabardurak ñabardura, espezialitate mediko bakoitzaren arabera”.

58.4.- Azaldutako guztia kontuan hartuta, LDEA honek adierazi behar du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikulua debekatutako lehia murrizten duten jardunbideak egin zirela, besteak beste lehiaren kontrako izaera duen helburu hau azaltzen duen elkarteak eratu zelako: errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datorren ordainsari-baremoa ezartzea.



Elkartearen helburu orokorren artean lehiaren kontrako helburu bat egoteak ez du eragiten elkartea egiteko negozio juridikoa baliogabetzeko ondorio juridikoa. Elkartearen helburu nagusia bertako kideen eskubide eta interes profesionalak defendatzea da, eta LDEZ honek lehiaren kontrakotzat hartu duen helburua (gutxieneko ordainsarien baremoa ezartzea) helburu nagusi hori lortzeko elkarteko kideek ezarritako beste helburuetako bat da. Horrenbestez, negozio juridikoa mantentzeko printzipioa betez, elkartearen helburuen artean lehiaren defentsari buruzko araudia urratzen duen legez kontrako helburu bat egoteak ez du elkartearen negozio juridikora zabaltzen akats hori. Hala eta guztiz ere, Elkarreak, eskumena duen elkarteko organoaren bitartez, estatutuak aldatu beharko ditu, eta lehiaren defentsari buruzko araudiaren kontra egiten duen helburu hori kendu.

58.5.- Elkartea eratzeko ekitaldian parte hartu zuten 41 traumatologoen hartu zuten akordioa —Gipuzkoan aseguru medikoen eremuan traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoak ematen dituzten 55 elkargokideetatik % 75—, eta elkartea egiteko negozio juridikoa formalizatu zuten. Halaber, antolamendu eta funtzionamendurako estatutu-arauak egin dituzten, bai eta Zuzendaritza Batzordea eratu ere. Gauzak horrela, lehiari buruzko araudiaren arau-haustea egin zutenak elkartearen pertsona juridiko hori eratu zuten pertsona fisikoak izango lirateke, eta inola ere ez elkartea bera. Zehapen-prozedura aipatutako elkartearen kontra baino ez da ireki, eta ez eratzeko akordioa hartu zuten pertsona fisikoen kontra. Hori dela eta, LDEA hau aztertzen dabilen administrazio-espeditatearen bitartez ezin da zehaztu elkartea eratzten duten 41 medikuek lehiari buruzko araudia hausteagatik izan duten administrazio-erantzukizuna, ez delako euren kontrako zehapen-prozedurarik ireki, eta ez dutelako administrazio-prozedura horren instrukzioan parte hartu.

Kontuan izan behar da Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikuluan azaldutako konstituzio-bermeak, Konstituzio Auzitegiaren 126/2005 epaiak dioenez, zehapen-prozedura administratiboei aplikatu behar zaizkiela, betiere bateragarriak badira horien izaerekin. Berme horien artean azaldu behar dira defentsarako eskubidea, egin diren karguen berri izateko eskubidea, eta defentsarako egoki diren frogabideak erabiltzeko eskubidea. Estatuaren *ius puniendi* edo zigor-ahalak defentsarako babesak erabiltzen direla bermatu behar du. Bestela, argi eta garbi, hautsi egingo litzateke Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 62. artikulutik erator litezkeen ondorio juridikoekin.

Azaldutakoa kontuan hartuta, LDEA hau ez dago ados eta, beraz, ez du onartuko LDEZk egindako ebazpen-proposamena, lehenengo arau-haustearen arduraduntzat Osasun Laguntzarako eta Osasunerako



Erakunde Pribatuetako Traumatologoek Elkarte hartzen duena, elkarte hori ez delako arau-haustearen subjektu aktiboa.

- 58.6.- Ondorioz, Auzitegi honek adierazi behar du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikulua debekatutako lehia murrizten duten jardunbideak egin zirela, besteak beste lehiaren kontrako izaera duen helburu hau azaltzen duen elkarte eratu zelako: *errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datozen ordainsari-baremoak ezartzea*.
- 58.7.- Azkenik, elkartearen helburu horrek urratu egiten duenez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua, Elkarteak estatutuak aldatu beharko ditu, eta ordainsari profesionalen baremoa zehazteko helburu hori kendu.
60. Gipuzkoako aseguru medikoaren eremuan traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoetarako ordainsariak kolektiboki ezartzeko Elkartearen erabakia.
- 59.1.- Elkarte lehiaren kontrako helburu batekin sortzeaz gain (ordainsari-baremoa zehaztea), 2007ko irailaren 17an Elkarte eratzeko egindako ekitaldian bertan, elkarteak hartu zuen lehenengo akordio soziala izan zen ordainsari-baremoa ezartzea Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialari eta aseguru-erakundeei aurkezteko, eta akordio berri emateko gutuna bidaltzea elkargoari eta aseguru-erakundeei. Akordio sozial hori betez, Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak gutxieneko ordainsari batzuk onetsi zituen, eta bertako kide guztiek berretsi zituzten ondoren. 2007ko urriaren 1ean Elkarteak idazkia bidali zien IPRESA, FIATC, ASISA, DKV eta ARESA aseguru-etxeei. Idazkian azaldu zuen gutxienekoei buruzko zenbait akordio hartu zirela, aho batez, Gipuzkoa eremurako osasun-laguntzarako eta osasunerako erakunde pribatuei kobratu beharreko tarifei dagokienez, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko. Era berean adierazi zuen haiekin lan egiten zuten aseguru-etxe guztiei jakinaraziko zitzaiela.. Ondoren, frogatutako seigarren gertakariak ondorioztatu den moduan, Elkarteak beste idazki bat bidali zien 2007ko azaroaren 2an IPRESA, ARESA, FIATC eta ASISA aseguru-erakundeei, 2007ko urriaren 1eko gutunaren edukia berretsiz. Bertan, eraketa eta ordezkagaitasunari buruzko zenbait zalantza argitzen dira, artikulua oinarri hartuta, eta, gainera, berriro diote **bidalitako ordainsariak gutxienekoak direla erakunde guztientzat, eta 2008ko urtarrilaren 1erako ezarri behar direla**³³
- 59.2.- Elkartearen legeko ordezkariak ez zituen zalantza ipini gertakari horiek, eta agiri bidezko babes handia dute zehapen-espeditan. Hala eta guztiz ere, Elkarteak defentsan adierazi zuen hutsegitean erori zela,

³³ Jatorrizkoan letra lodian eta azpimarratuta.



negoziatzeko esperientzia faltaren ondorioz. Era berean adierazi du legearen kontrako jardura izango litzatekeela gutxieneko ordainsariak ezarri izan balira, baina ez zen horrelako inposiziorik egin, Elkarteak ondorerik gabe utzi zuelako lehenengo gutunen edukia (urriaren 1ekoa eta azaroaren 2koa), eta banan-banan negoziatu zelako aseguru-etxe bakoitzarekin eta mediku bakoitzerako (11809 folioa). Elkarteak hau ere esan zuen: “HARTU DIREN AKORDIO BERRIEN BITARTEZ, GUTXIENEO ORDAINSARIAK KENDU ETA GUTXI GORABEHERAKO ORDAINSARIAK ONARTU DITUZTENAK, ASEGURU-ETXE BAKOITZAREKIN BANAKAKO NEGOZIAZIOAK EGITEKO JARRAIBIDEAK EZARRI DIRA”³⁴ (1.179 FOLIOA). Azkenik, Elkarteak Elkargo Profesionalak duen eskumenean babestu du bere jarduna. Izan ere, Elkargoa legez dago ahaldunduta gutxi gorabeherako ordainsari profesionalak ezartzeko eta, horri jarraituz, Elkargo Profesionalak Elkarteari eskuordetu dio eskumen hori, Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren estatutuetako 6.n.1 artikulua bitartez.

59.3.- Nolanahi ere, gutxieneko ordainsarien baremoa ezarri izana traumatologoaren negoziatzeko esperientzia faltaren ondoriozko akatsa izan zela dioen errugabetze-argudioak ez du balio Elkartearen lehia urratzeko jardunetik eratorritako administrazio-erantzukizunetik salbuesteko. Aldiz, inguruabar faktikoak dira eta, hala badagokio, LDEA honek kontuan hartu ahal izango ditu isuna graduatzeko. Ildo berekoa da Audientzia Nazionalaren 2009ko uztailaren 10eko epaia, honakoa dioela: *“Horri ezin zaio aurka egin aipatutako akatsa edo asmo eza adieraziz. Inguruabar horrek, hala badagokio, zehapenaren larritasunari eragin ahal izango dio, baina ez luke esan nahiko arau-hausterik egon ez denik, arau-haustea dakarten jokabideak zabarkeria huts gisa zeha baitaitezke.”*

59.4.- Azaldutakoaz gain, LDEA ez dago ados Elkartearekin gutxieneko ordainsarien baremoa ezarri izana akatsaren ondorio izan zela dioenean. Aldiz, erabaki kontzientea da, alde aurretik pentsatutakoa, ikertu, aztertu eta hausnartutakoa, azken zortzi urteetan aseguru-etxe gehienek eguneratu gabeko baremoen blokeoa duten profesionalek bizi duten problematikari aurre egiteko asmoz. Horrela bada, Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak 2007ko urriaren 1ean osasun-laguntzarako eta osasunerako erakunde pribatuei bidalitako gutunean adierazi zen, hainbat batzar partzial egin ostean, eta Elkartearen eratzeko batzar kolektiboa egin ostean, gutxienekoei buruzko zenbait akordio hartu zirela, aho batez, eta ondoren bertako kide guztiek berretsi zituztela, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango zituztela ondoreak. Ondoren, 2007ko urriaren 25ean, Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak berretsi egin zituen zerbitzuak ematen dituzten traumatologo gehienek elkarrekin hartu zituzten gutxieneko ordainsariei buruzko tarifak. Azkenik, 2007ko azaroaren 2an

³⁴ Jatorrizkoan letra larrietan.



aseguru-erakundeei bidalitako gutunaren bitartez, berretsi egin zuten urriaren 1ean bidalitako gutunean adierazitakoa.

59.5.- Elkarteak bere burua defendatzeko dio ez duela LDL urratu, ondorerik gabe utzi dituelako 2007ko urriaren 1eko eta urte bereko azaroaren 2ko gutunak. Hain zuzen ere, adierazi du Legearen kontrako jarduera izango litzatekeela gutxieneko ordainsariak ezarri izan balira, baina ez zen horrelako inposiziorik egin, ondorerik gabe utzi zuelako lehenengo gutunen edukia. Hau da, ez da lehiari buruzko zuzenbidearen arau-hausterik egin, aseguru-erakundeei ez zitzaielako ordainsari-baremoa ezarri.

Ezin da ados egon Elkarteak adierazi duen errugabetze-argudioarekin, jarraian azaldu diren iritzia kontuan hartuta:

LDLren 1. artikuluan deskribatutako arau-hauste ereduaren ez da ezinbestekoa lehia askea urratzeko helburua betetzea, nahikoa da jokabidea egitean helburu hori izatea, lortu zein ez. Lehia faltsutzeko helburua lortzeko gaitasuna izan behar du jokabideak. Horixe adierazi zuen dagoeneko ez dagoen LDAk 1995eko ekainaren 28ko ebazpenean (351/94 esp., Espainiako Tokoginekologoaren Elkartearen):

“Beste alde batetik, korporazioan prezio bakar eta berbera negoziatzeko akordioa burutu egin da. Hori ez da beharrezkoa arriskuaren arau-haustea egoteko, nahikoa baita akordioa hartzea. Hala ere, kontuan hartu behar da zehapena zehazteko”.

Gainera, LDLren 1. artikulua araberan beharrezkoa ez den arren lehia askea urratzeko helburua lortzea, aztertzen gabiltzan kasuan, gutxieneko ordainsari profesionalak 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu ez ziren arren (Elkarteak nahi zuen bezala), horrek ez du esan nahi gutxieneko ordainsariak zehazten zituen lehiaren kontrako akordioak eragin neutroa izan duenik erreferentzia-merkatuan Egia da ondorioz larriena gutxieneko ordainsarien baremoa indarrean sartu eta aseguru-erakunde guztiei ezartzea izango litzatekeela. Baina, era berean, egia da baita ere hori ez dela lehiaren kontra eginez izan dezakeen ondore bakarra. Ezin daiteke esan ondorio hori kenduta Elkartearen jokabideak ez duela lehiaren kontrako beste eraginik erreferentzia-merkatuan, hau da, Elkartearen akordioak erreferentzia-merkatuan duen isla hutsala eta asepticoa denik baremoa indarrean sartu aurretik. Aldiz, behin Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak eta bertako kide guztiek gutxieneko ordainsari profesionalen baremoa onetsi eta aseguru-erakundeei jakinarazita, lehiaren kontrako akordio horrek eragina du aseguru-erakundeetan, *aseguru-erakundeen jarrera eta jokabidea behartzen baita traumatologoeekin negoziatzea, bai eta edukia ere.*



Gainera, lehiaren kontrako jokabidearen denbora-faktorea ere garrantzitsua da, gutxieneko ordainsarien baremoa indarrean sartzeko datatik hurbil izan baitzen. Horrek lehiaren kontrako indar handiagoa ematen dio, handitu egiten baita aseguru-erakunde pribatuen gaineko presioa. Kontuan izan behar dira, era berean, Elkarteak 2007ko azaroaren 2an egindako jarduerak. Izan ere, Elkarteak bidalitako gutun baten bitartez, berretsi egin zen gutxieneko ordainsarien baremo hori, eta ordainsari profesional horiek onestearekin ados egon ezean bertako koadro medikoak bertan behera uzteko mehatxua egin zien erakundeei.

Horren harira aipatu behar da Elkarteak gutxieneko ordainsari profesionalak ezartzeko hartu zuen akordioa lehiaren kontrakoa dela duen helburuagatik eta, era berean, duen ondorioagatik. Izan ere, gutxieneko ordainsari profesional horiek Elkarteak nahi zuen egunean indarrean sartu ez ziren arren (indarrean sartu izanez gero are larriagoa izango litzateke jokabidea), bai izan ditu ondorioak aseguru-erakundeen portaerarako presio-neurri moduan, modu antijuridiko batean behartzeko asmoz, lehiaren gaineko araudiaren kontrakoak baitira mediku espezialistekin egindako negoziazioak eta horren edukia.

59.6.- Elkarteak bere burua defendatzeko adierazi du lehiari buruzko araudiaren kontrako jokabidea aseguru-erakundeei egin dutela erreferentzia-merkatuan. Dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak 1992ko uztailaren 30eko ebazpenean ere adierazi zuen legez kontrako — kolusiozko edo abusuzko— lehia-jokabide baten aurreko defentsa salaketa eta arau-haustearen jazarpena direla, eta ez lehiaren eskubidearen beste arau-hauste bat egitea. Ildo berean, LDEA honek 1/2009 Ebazpenean (TELEFONICA) adierazi zuen lehiaz arduratzen diren agintariek ezin dutela inola ere onartu merkatu batean lehiaren arloan eginiko arau-hauste batek merkatu berean beste arau-hauste bat justifika dezala.

Elkarteak eratu zuten traumatologoaren iritziz aseguru-erakundearen egoerak lehiari buruzko araudia hausten badu, euren ustez modu berdinean, arautu eta bateratuan jardun dutelako, salaketa ipini beharko lukete LDEZn, eta ez lehiari buruzko arauen kontrako jokabideak hartu euren interesak defendatzeko.

59.7.- Halaber, LDEA hau ezin da ados egon elkarteak legezkotasun-printzipioaren arabera jardun duela dioen errugabetze-argudioarekin. Elkarteak dio, hain zuzen ere, Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren estatutuei jarraituz jardun duela, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko ekainaren 27ko Aginduaren bitartez onetsi zirela estatuok. Elkargo-arau horrek baimena ematen dio elkargo ofizialari gutxi gorabeherako ordainsariak ezartzeko eta Osasun Laguntzarako Erakundeekin negoziatu ahal izateko (6.n.10 artikulua), ez diola inolako aipamenik egiten Lehiaren Defentsari buruzko Legeari.



Alegazio hori urrundu egiten da aztertzen gabiltzan zehapen-espeditentean aztertutako gertakarietatik, hau da, elkarteak gutxieneko ordainsarien baremoa ezartzeko gertakarietatik.

Ordainsari profesionalak ezartzeko Elkartearen akordioa Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren Zuzendaritza Batzordeak aipatutako elkarte onartu baino lehen hartu zen, 2007ko urriaren 30ean onartu baitzen elkarte. Bertan errieta egin zitzaion Elkarteari, ordainsari-baremoak, gutxienekoak izan beharrean, gutxi gorabeherakoak izan behar direlako. Aurretiaz azaldu den bezala, Elkarte onartu izanak ez du eragiten Elkarteak egindako legez kontrako egintzak zuzenbidearen arabera egokitzea. Hau da, ez dira konpontzen Elkarteak lehiari buruzko arauak hautsiz egin dituen egintza antijuridikoak.

Azaldutakoa kontuan hartuta, ezin da ados egon Elkarteak legezkontasun-printzipioaren arabera jardun duela dioen errugabetze-argudioarekin. Izan ere, gutxieneko ordainsarien baremoa ezartzeko hartu zuen akordioak urratu egiten ditu lehiari buruzko arauak, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikuluan debekatutako kolusiozko jokabidea baita. Gainera, berriro esan behar dugu Elkarte ez dela elkargo profesional bat, baina horri ere ez dagokiola gutxieneko ordainsari profesionalak ezartzeko eskumena; are gehiago, debekatuta dauka, legez.

59.8.- Zuzenbideko oinarri honetan azaldutakoa kontuan hartuta, LDEA honek adierazi behar du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikuluan debekatutako lehia murrizten duten jardunbidea egin dela. Izan ere, Gipuzkoako aseguru medikoaren eremuan traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoetarako ordainsariak ezartzeko erabakia hartu zen. Halaber, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkarte hartuko da erantzulez.

61. Boikota egitea, Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Gipuzkoako Erakundeak behartzeko erabakitako ordainsariak onartzera.

60.1.- LDEA hau aztertzen dabilen zehapen-prozeduran LDEZk Elkarteari leporatzen dion azken kargua boikota egin izana da, Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Gipuzkoako Erakundeak behartzeko erabakitako ordainsariak onartzera, edo horiek negoziatzera, eta 2007ko urriaren 1eko gutuna bidali aurretik aseguru-etxeetako koadro medikoak osatzen zituzten traumatologoak mantentzera.

Ebazpen-proposamenean LDEZk adierazi du prezioak ezartzeko erabakiarekin batera, gainera, presio-neurriak ere hartu zirela, esaterako: 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera *gutxienekoen* ordainsariak onartzen ez zituzten hainbat aseguru-etxetako koadro medikoetako traumatologoek



emandako zerbitzuak aldi berean utzi egingo zituztela zioen jakinarazpena³⁵; 2007ko abenduaren 3an C.S.V.Pilar zentroan azaldu zen iragarkia; *Diario Vasco* egunkarian argitaratutako iragarkia, IPRESA eta FIATC aseguru-etxeetako koadro medikoetako traumatologoei buruzkoa; edo 2007ko abenduaren hasieran IPRESA, FIATC eta ARESA aseguru-etxeei batera bidalitako traumatologoaren banakako uko-idazkiak. Era berean, LDEZk dio jarduera horiek osatzeko ez zitzaiela erantzun aseguru-etxeek koadro medikoak elkartetik kanpo betetzen saiatzeko elkarteko hainbat traumatologori bidalitako eskaintzei/eskaerei. Osasun-laguntzaren kasuan, LDEZk azpimarratu du emandako zerbitzuak pertsonalak direla, eta aseguru-etxeetako koadro medikoetan profesionalen bajak edo aldaketak egonez gero, aseguratuak baja ematea eragin dezakeela.

Elkartearen legezko ordezkariak LDEA honi eskatu zion adieraz zedila ez dela inolako boikotik egin Osasun Laguntzarako Erakundearen kontra, eta lehenengo gutunak baliogabetuta eta ondorerik gabe geratu zirela, ezeztatu egin zirela eta negoziazioak hasi zirela, elkargoaren estatutuen babespean. Horrela bada, Elkarteak lege-araurik urratu ez duela adierazteko eskatu du.

60.2.- Elkarteak onartu egin ditu lehia-araudiaren kontrako boikot-jokabidetza hartzeko LDEZk kontuan izan dituen gertakariak. Hala eta guztiz ere, elkarteak gertakariok ezeztatu zituela eta eraginik izan ez dutela adierazi du eta, ondorioz, arau-hauste administratiborik ez dagoela uste du. Beraz, aztertu behar dena da errealitate faktiko hori, Elkarteak berak onartzen duena, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua arau-haustea den.

Gertakari horiei dagokienez, LDEA honek uste du Elkarteak gutxieneko prezioak ezartzeko hartu zuen akordioa 2007ko urriaren 1ean jakinarazi zitzaiela aseguru-erakundeei, horiek akordioaren berri izateko eta horri buruzko erantzuna jasotzeko gutxieneko ordainsari profesionalen baremoa indarrean sartu aurretik. Elkarteak ez zuenez aseguru-erakundearen erantzun egokirik jaso horri buruz —ez zutelako uste elkarteak baliozko solaskidea zenik, eta, era berean, zalantzan ipintzen zutelako akordioa legezkoa zela lehiari buruzko araudia urratzen zuela uste zutelako— Elkarteak erabaki zuen beste urrats bat emango zuela, eta traumatologoen osasun-laguntzarako erakunde pribatuei ematen dizkieten zerbitzuak ordaintzeko gutxieneko prezioak ezarri nahi izan zizkien aseguru-erakundeei. Horrela bada, Elkarteak berretsi egin zuen gutxieneko ordainsariaren baremoa onesteko akordioa, eta 2007ko azaroaren 2an berriro jakinarazi zien aseguru-erakundeei (IPRESA, ARESA, FIATC eta ASISA) ordainsari profesionalen baremoa, ordainsariak gutxienekoak zirela errepikatuz. Era berean ohartarazi zuen gutxieneko horiek guztiz

³⁵ Elkarteak 2007ko azaroaren 2an erakundeei bidalitako gutuna.



baieztatu ezean, aseguru-erakundeko koadroko medikuek ez zietela arretarik egingo bertako aseguratuari, baina “paziente partikular” bezala eman ahal izango zietela arreta. Ondoren, beste jakinarazpen bat egin zen 2007ko azaroaren 15ean, eta horren bitartez jakinarazi zen 41 traumatologoek, banaka, desegin egingo zutela IPRESA, FIATC eta ARESA aseguru-etxeekin “zerbitzuak emateko” zuten harremana, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera. Zerbitzuak emateko harremana desegitea eragin zuen arrazoia Elkarteak eratzeko eragin zuen berbera izan zen, hau da: aseguru-etxeak tarifa eta ordainsari profesionalak eguneratzean atzeratzea eta, gainera, goian aipatu den elkartearen jakinarazpenari ez erantzutea.

Zerbitzu medikoak emateko harremana desegino zela zioen jakinarazpenaren ondorioz, zerbitzu medikoak emateko harremanen banakako desegiteak sinatu zituzten traumatologo guztiak jakinarazi zuten ordurako aginduak eman zituztela 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera aseguru-konpainiak aseguratuei bisita medikorako hitzordurik ez emateko.

Azkenik, 2007ko abenduaren 26an *Diario Vasco* egunkarian argitaratutako iragarkien bitartez “*Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Traumatologoek*” azaldu zuten iragarkian zerrendatutako espezialistak (40) 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ez zirela izango³⁶ IPRESA eta FIATC aseguru-etxeetako koadro medikoetako kide.

Hau da, gutxieneko ordainsarien baremoa erabaki eta aseguru-erakundeei jakinarazi ondoren, presio-neurriak hartu ziren —Elkartearen legezko ordezkariak azaldu duen bezala—: 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera *gutxieneko* ordainsariak onartzen ez zituzten hainbat aseguru-etxetako koadro medikoetako traumatologoek emandako zerbitzuak aldi berean utzi egingo zituztela zioen banakako jakinarazpena egin zitzaizen aipatutako aseguru-erakundeei³⁷; 2007ko abenduaren hasieran IPRESA, FIATC eta ARESA aseguru-etxeei batera bidalitako banakako uko-idazkiak; Gipuzkoan gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratutako iragarkia; eta 2007ko abenduaren 3an C.S.V.Pilar zentroan azaldu zen oharra.

- 60.3.- Gertakarien lotura horrek Elkarteak antolatu, diseinatu eta egindako estrategia azaltzen du, bere helburua aseguru-erakundeei Elkarteak berak bakarrik hartu zuen gutxieneko ordainsarien baremoa onar zezatela zela, edo aseguru-erakundeak negoziatzera behartzea. LDEA ez dago ados LDEZren ebazpen-proposamenarekin, bertan aipatzen baita boikotekintzen helburua, besteak beste, aseguru-etxeetako koadro medikoak eratzen zituzten traumatologo guztiak mantentzea zela. Izan ere, koadro

³⁶ Letra lodia egunkariko iragarkitik ondorioztatu da.

³⁷ Elkarteak 2007ko azaroaren 2an erakundeei bidalitako gutuna.



medikoak elkartetik kanpo betetzen saiatzeko aseguru-erakundeek hainbat traumatologori bidalitako eskaintzei/eskaerei erantzun ez izana presioa egin eta behartzeko beste jokabide bat dela uler daiteke, aseguru-erakundeek gutxieneko ordainsarien baremoa ezartzera behartzeko edo horien negoziazioa behartzeko Elkarteak diseinatu zuen lehiaren kontrako estrategiaren barruan.

LDEZk ebazpen-proposamenean dio Elkarteak egindako boikot-jokabideak merkataritza-harremanak kentzen dizkiela, edo kendu nahi dizkiela, Gipuzkoan dauden Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko hainbat Erakunderi, eskatzen zaien horretan amore ematera behartzeko.

60.4.- Boikota egitean gizarte- edo merkataritza-harremanen batetik baztertzen da pertsona edo erakunde bat, kalteak eragiteko eta eskatzen zaion horretan amore ematera behartzeko. Hau da, boikotak gizarte- edo merkataritza-harremanen barruan garatzen dira, subjektu aktibo bat(zu)ek egiten du(te) subjektu pasibo bat(zu)en kontra, kalteak eragiteko eta eskatzen den horretan amore ematera behartzeko.

Aztertzen gabiltzan kasuan boikotak dakartzan elementuak ikusten ditu LDEA honek: 1) Subjektu aktiboa: Elkartea. 2) Subjektu pasiboa: Aseguru-erakundeak 3) Helburua: Elkarteak berak bakarrik hartu zuen gutxieneko ordainsarien baremoa onartzea, edo aseguru-erakundeak negoziatzera behartzea. 4) Motibazioa: Ekintzaren hartzaileari kalteak eragitea edo zerbait egitera behartzea.

Elkarteak erabaki zuen 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera elkarteko kideek ez zietela zerbitzu profesionalik emango aseguru-erakundeei, gutxieneko ordainsari profesionalen baremoa onartu edo horiek negoziatzea onartu arte, eta horrela boikota egin zuen Elkarteak. Beraz, LDEA honek antijuridikotzat hartu behar du ekintza hori, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikulua urratzen duelako. Gogoan izan horixe adierazi zuela dagoeneko ez dagoen LDAk 1995eko ekainaren 28ko ebazpenean (351/94 esp., Espainiako Tokoginekologoen Elkartea):

“Bertako kideek zerbitzu profesional medikoak emateari uztea boikot akordioa da eta, merkatuaren funtzionamendua aldatzeaz gain, boikotatua kentzea ere eragin lezake, eskatutakoa onartu ezean. Kolusiozko erabaki edo akordioen aldaera bat da, eta Auzitegiak beste batzuetan ere aztertu izan du (1993ko urtarrilaren 7ko Ebazpena, Esp.: 315/92). LDLren 1.1 artikuluaen barruan daudela ondorioztatu izan da, eta onartu ezin direla, nahiz eta boikotatuak legez ezin uko egin eskatzen zaion jokabideari.”

Dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Kataluniako Auzitegiak, 2006ko urriaren 31ko ebazpenean (12/06 Esp., Kataluniako Tokoginekologoen Elkartea), honakoa adierazi zuen:



“Horrenbestez, Kataluniako Tokoginekologoek Elkarteak boikot jokabide kolektiboa egin du, uko egin baitio aseguru-etxearen pentzura laguntza medikoa emateari, Adeslas-ek zenbait kontratu-baldintza onar zitzala behartzeko. Hitzartutako jardunbide horizontala da, lehiaren murrizketa larrien barruan dagoena. Jokabide horren ondorioak argiak dira medikuen portaeran eta, lehiaren defentsaren ikuspegitik, tokoginekologiako zerbitzu medikoen merkatuan aseguru medikoaren eremuan. Izan ere, kostuak garestitu egin behar izan dira bezeroak konpentsatu ahal izateko, eta izen txarra eman zaio boikota jaso duen operadoreari, horrek guztiak merkatutik irten behar izana ere eragin lezakeela. Kataluniako Tokoginekologoek Elkartearen boikotarekin lortu nahi den helburua da koadro medikoko tokoginekologo guztientzako ordainsariak ezartzea aseguru-etxeari [...]”

60.5.- Elkarteak bere burua defendatzeko adierazi du arau-hauste gisa ezarri zaion jokabideak ez duela eraginik izan, ezeztatu egin zelako, eta beraz ez dela lehiaren zuzenbidea urratu.

LDEA ez dago ados Elkartearen ordezkariak ondorioztatutako errugabetze-argudioarekin. Alde batetik, arestian azaldu den bezala, erreferentzia-merkatuan lehiaren kontrako eraginik ez izateak ez du esan nahi jokabideak lehiari buruzko arauaren kontra egin ez duenik. Lehiari buruzko araudia hautsi egin da, jokabideak lehiaren kontrako eraginak izan zein ez. Lehenago adierazi den bezala, LDLren 1. artikuluan deskribatutako arau-hauste eredian ez da ezinbestekoa lehia askea urratzeko helburua betetzea, nahikoa da jokabidea egitean helburu hori izatea, lortu zein ez. Jokabideak lehia faltsutzeko gai izan behar du, aztertzen gabiltzan kasuan bezala, ebazpen honetan adierazi dugunez.

Bestalde, ez da egia jokabide horiek ez dutela lehiaren kontrako eraginik izan. Aitortu egin behar da ez dela eragin larriena eragin, hau da, 2008tik aurrera aseguru-erakundeetako aseguratuak zerbitzurik ez ematea. Hala eta guztiz ere, erreferentzia-merkatuan bai egon dira lehiaren kontrako ondorioak, eta ez bakarrik aseguru-erakundeentzat, baita bertako aseguratuentzat ere, jarraian azaldu den bezala.

LDEA ados egon liteke Elkarteak azaldutako alegatu honekin: medikuek ez diote utzi aseguru-erakundeetako aseguratuak zerbitzu profesionalak emateari. Baina ezin da ados egon Elkartearen ordezkariak argudio horrekin lortu nahi duen ondorio juridikoarekin. Izan ere, Elkarteak aipatu du medikuek aseguru-erakundeetako aseguratuak arreta eman dietenez, ez dela lehiari buruzko araudiaren arau-hausterik egin.

Boikot-jokabideak ez die ondorioz eragin aseguratuak, ez zaielako laguntza fakultatiboa ukatu gutxieneko ordainsarien baremoaren jakinarazpena jaso duten aseguru-erakundeetako aseguratuak diren



pertsona fisikoei. Baina horrek ez du esan nahi Elkarteak egin duen boikot-jokabideak eraginik izan ez duenik, aseptikoa izan denik eta zuzenbidearen arabera denik. Aldiz, aseguru-erakundeek zuzeneko eraginak jasan dituzte Elkarteak —41 traumatologok osatuta, hau da, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuei zerbitzuak ematen dizkieten traumatologoek % 75— hartu duen gutxieneko ordainsarien baremoa zehazteko erabakiaren ondorioz. Izan ere, horrela, presio antijuridikoa egin zaie aseguru-erakundeei, are larriagoa dena denbora laburra dutelako eta aseguru-etxeek profesional mediko gutxi dituztelako 2008ko urtarrilaren 1erako profesional medikoen beste koadro bat eratzeko, elkarteko kideetatik kanpo. Horrek, bada, arrisku latza dakar, Elkarteak berak bakarrik ezarritako baldintzak onartu ezean merkatutik kanpo gera baitaitezke. Traumatologiako mediku espezialisten eta aseguru-erakundeek arteko negoziazioa behartu du horrek eta, beraz, lortu nahi den eragina lortu da. Presio antijuridikoa da, lehiari buruzko araudiaren kontra egiten duelako, bere helburua aseguru-erakundeei euren espezialitate medikoan azaltzen diren zerbitzu medikoengatik gutxieneko ordainsarien baremoa ezartzea delako, edo aseguru-erakundeekin negoziazioa egitea behartzea.

Beste alde batetik, ezin da ados egon Elkarteak azaldutako beste argudio honekin ere: Bere ustez, presio-jokabideek ez dute islarik izan aseguru-erakundeetako aseguratuengan, traumatologoek ez diotelako uko egin aseguru-erakundeetako aseguratuari zerbitzuak emateari. Izan ere, eragin hori larriena den arren, ez da eragin bakarra. Espedientean 2007ko abenduaren 26an *Diario Vasco* egunkarian argitaratu zen iragarkia azaltzen da. Iragarki hori “Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Gipuzkoako Traumatologoek” sinatu zuten, eta horren bitartez jakinarazi zuten bertan zerrendatutako 40 espezialistak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera ez zirela IPRESA eta FIATC aseguru-etxeetako koadro medikoetako kide izango. Gainera, traumatologoek aseguru-erakundeei bidalitako banakako uko-idazkietan adierazi zen ukoen sinatzaileak ordurako aginduak eman zituela 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera zenbait aseguru-erakundeetako aseguratuari kontsultarako hitzordurik ez emateko.

Boikot-akordioak, aseguru-erakundeetako aseguratuari laguntzarik ez ematea eragin ez duen arren, presioa, segurtasun eza eta ziurgabetasuna ekarri die eragindako aseguru-etxeetako bezeroei, batez ere kontuan hartuta Elkarteko kideek eskainitako zerbitzuak osasun-zerbitzu eskatuenak direla eta konfiantza berezia dagoela medikuaren eta pazientearen artean. Presioak handitu egiten ditu jokabidearen eraginak, denbora laburra baitago aseguratuak berria jakin zutenetik iragarkian zerrendatutako profesionalek 2008ko urtarrilaren 1ean aseguru-etxe horietako koadro medikoetako kide izateari utziko zioten arte. Presio eta ziurgabetasun horien ondorioz, aseguratuak aseguru-etxearekin zuten aseguru-kontratua desegiteko erabakia har zezaketen,



bai eta aseguru-erakundearekin kontratua egin zezaketen beste bezero batzuek motibazioa galtzea eragin ere. Egia da aseguru-erakundeei egindako presioa ez dela alderdi larrienean gauzatu, hau da, ez da gertatu mediku profesional guztiak aseguru-erakundeetako koadro medikoetatik joatea eta bertako aseguratuari laguntzarik ez ematea. Baina horrek ez dio ez-zilegitasunik kentzen boikot-jokabideari, Elkarteak berak presio eta behartze gisa kalifikatu duena, eta segurtasun eza eta ziurgabetasuna sortu ahal izan ditu eragindako aseguru-etxeetako aseguratuengan. Halaber, kontuan izan behar da modu antijuridikoan behartu dela traumatologoen eta aseguru-erakundeen arteko negoziazioa.

Hala eta guztiz ere, LDEA honek, zehapena graduatzean, kontuan izan beharko du boikot-egintzak IPRESA, ARESA, FIATC eta ASISA aseguru-erakundeei bakarrik egin zaizkiela, eta ez zaiela laguntzarik ukatu erakunde horietako aseguratuari.

- 60.6.- Azaldutakoa kontuan hartuta, LDEA honek adierazi du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikuluan debekatutako lehia murrizten duten jardunbideak egin direla. Izan ere, boikota egin da Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Gipuzkoako Erakundeak behartzeko Elkarteak erabakitako gutxieneko ordainsariak onartzera, edo horiek negoziatzera. Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoen Elkarteak da horren erantzulea.

62. Zehapena zehaztea.

- 61.1.- Aztertu den zehapen-prozeduraren barruan LDEA honek egiaztatu du, arestiko Zuzenbideko Oinarrietan azaldu den bezala, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea urratzen duten hiru jokabide egin direla.

Alde batetik lehiari buruzko araudia urratu da besteak beste lehiaren kontrako helburu hau duen elkarteak eratzean: errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datorren ordainsari-baremoa ezartzea. Elkartearen helburuen artean lehiaren kontrako helburu bat egoteak ez dakar elkarteak eratzekeko negozio juridikoa baliogabetzea, baina Elkarteak bere fundazio-estatutuak aldatu behar ditu lehiari buruzko araudiaren kontrako helburua kentzeko bertatik.

Zehapen-prozedura administratiboa Elkartearen kontra egin denez, eta ez elkarteak sortu zuten bazkideen kontra, ebazpen honen bitartez ezin da zehaztu besteak beste lehiaren defentsarako zuzenbidea urratzen duen helburu bat duen elkarteak eratzeke eratorritako erantzukizun administratiborik.



Beraz, Elkarteari ezin zaio inolako zehapenik ezarri lehiari buruzko araudiaren kontrako jokabide hori zigortzeko.

Hala ere, LDEA honek aipatu behar du, eta Elkarreak jakin egin behar du, Elkartearen estatutuetan lehiari buruzko zuzenbidearen kontrako helburu bat dagoela oraindik, eta Elkarreak —herritar guztiek moduan— legezatasun-printzipioa bete behar du, eta zehatzago esanda Lehiaren Defentsari buruzko Legea. Hori dela eta, LDEA honek agindeia egin behar dio Elkarteari, estatutuak alda ditzan eta aipatutako legea urratzen duen helburua ken dezan bere helburuen artetik.

Beste alde batetik, LDEA honek beste jokabide bat hartu du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikularen kontratut: Gipuzkoako aseguru medikoaren eremuan traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoetarako ordainsariak ezartzeko erabakia. Halaber, LDEA honek beste jokabide hau ere hartu du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikularen kontratut: boikota egitea, Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Gipuzkoako Erakundeak behartzeko erabakitako ordainsariak onartzera, edo horiek negoziatzera. LDEAk Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuetako Traumatologoaren Elkarrea hartu du jokabide horien erantzuletzat.

61.2.- Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 63.1 artikularen arabera, LDEAk isun-zehapenak ezarri ahal izango dizkie lehiari buruzko araudian xedatutakoa nahita edo utzikeriagatik urratzen duten enpresa, enpresen elkarte edo bestelako eragile ekonomikoei. Arau-hausteari emandako sailkapenaren arabera, eta enpresa arau-hausteari negoziobolumenaren irizpide objektiboa kontuan hartuta, Lehia Agintaritzak ezar litezkeen isunen zenbatekoaren muga kuantitatiboak zehazten ditu legeak. Elkarreen kasuan, aztertzen gabiltzan honetan bezala, kideen negoziobolumena kontuan hartuta zehaztuko da elkarreen negoziobolumena.

Aurrekoaz gain, Lehiaren Defentsari buruzko Legeak, 64. artikuluan, isunen zenbatekoa zehazteko irizpideak ditu ezarrita, Lehia Agintaritzak jokabide arau-hausteari inguruabar berezien arabera doi ditzan isun-zehapenen zenbatekoak.

Arau horiek erabili behar ditu LDEA honek, arestian deskribatu diren lehiari buruzko araudiaren arau-hausteari egin izanagatik Elkarteari ezarri beharreko isun-zehapena zehazteko.

61.3.- Elkarre batek gutxienezko ordainsari profesionalen baremoa ezartzea lehiaren defentsari buruzko araudia hausteko jokabide larrietako bat da. Arau-hauste oso larria da eta, horrelakoetan, araua hautsi duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen



negozio bolumenaren ehuneko 10era arteko isuna ezarri ahal izango da. Oinarri juridiko hori kontuan hartuta, Elkarteak gutxieneko ordainsari profesionalen baremoa ezartzeko akordioa hartzean egondako inguruabar guztiak hartu behar ditu kontuan LDEAK. Oinarria izan zen aseguru-erakundeek ordainsari-baremoak izoztu zituztela kronikoki, eta Elkarteko kideak nahiak bateratu zituzten euren interes profesionalak defendatzeko asmoz. Elkartea 41 traumatologok osatzen dute, Osasun Laguntzarako eta Osasunerako Erakunde Pribatuei zerbitzuak ematen dizkieten traumatologoaren % 75 direla. Beraz, Elkarlean gutxieneko ordainsarien baremoa ezartzeak eragin handia du, lehiaren ikuspegitik, erreferentzia-merkatuan. Hala eta guztiz ere, LDEA honek kontuan izan behar du gutxieneko ordainsarien baremoaren kasu zehatza ez dela indarrean sartu eta, beraz, ez dela aplikatu profesional mediko horiek osasun-laguntzarako eta osasunerako erakunde pribatuei ematen dizkieten zerbitzuetan. Inguruabar horrek, lehiaren araudiari dagokionez, ez dio antijuridikotasunik kentzen jokabideari, baina larritasuna kentzen dio, eragin txikiagoa duelako erreferentzia-merkatuan. Gainera, nabarmendu egin behar da Elkarteak egoera aktiboa izan duela gutxieneko ordainsarien baremoa ezartzeak dakartzan lehiaren kontrako eraginak murrizteko. Azkenik, kontuan izan behar da Elkarteak lankidetzaz azaldu duela Lehia Agintaritzarekin. Inguruabarrok aztertu ostean, LDEA honek lau mila euroko (4.000 euro) isun-zehapena ezarri du jokabide horretarako.

- 61.4.- Boikota ere lehiaren defentsari buruzko araudia hausteko jokabide larrienetako bat da. Arau-hauste oso larria da eta, horrelakoetan, araua hautsi duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen negozio bolumenaren ehuneko 10era arteko isuna ezarri ahal izango da. Aipatutakoa oinarri hartuta, LDEA honek Elkarteak egindako boikot-jokabidea zehatzeko ezarri beharreko isunaren zenbatekoa zehaztu behar da. Gutxieneko ordainsari profesionalen baremoa ezartzeko jokabidearen kasuan isun-zehapena zehatzeko aipatu diren inguruabarrak hartu behar dira kontuan, baina, era berean, beste hau ere izan behar da kontuan: boikot-jokabidea aseguru-erakunde batzuei bakarrik egin zaie (IPRESA, ARESA, FIATC eta ASISA) eta, gainera, eta ez zaie laguntzarik ukatu aseguru-erakunde horietako aseguratuari. Hori guztia kontuan hartuta, LDEA honek bi mila euroko (2.000 euro) isun-zehapena ezarri du boikot-jokabiderako.



Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honek, arestian aipatutakoa oinarri hartuta, honakoa

EBATZI DU:

LEHENENGOA.- Adieraziko da Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikulua debekatutako lehia murrizten duten jardunbideak egin zirela, besteak beste lehiaren kontrako izaera duen helburu hau azaltzen duen elkarteak eratu zelako: errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datorren ordainsari-baremoa ezartzea.

BIGARRENA.- Agindeia egingo zaio OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEARI, Elkartearen estatutuak alda ditzan, elkartearen helburuen artetik ken dezan lehiaren kontrako izaera duen hau: errealitate sozialarekin eta lanbidearekin bat datorren ordainsari-baremoa ezartzea.

HIRUGARRENA.- Adierazi egingo da OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEAK Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikuluan debekatutako lehia murrizten duen jardunbidea egin duela. Izan ere, Gipuzkoako aseguru medikoaren eremuan traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzu medikoetarako ordainsariak ezartzeko erabakia hartu zuen. Horri dagokionez, lau mila euroko (4.000 euro) zehapen-isuna ezarriko zaiola ere erabaki da.

LAUGARRENA.- Adierazi egingo da OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEAK Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1.1 artikuluan debekatutako lehia murrizten duen jardunbidea egin duela. Izan ere, boikota egin zuen Osasun Laguntzarako Aseguru Libreko Gipuzkoako Erakundeak behartzeko Elkartek erabakitako gutxieneko ordainsariak onartzera, edo horiek negoziatzera. Horri dagokionez, bi mila euroko (2.000 euro) zehapen-isuna ezarriko zaiola ere erabaki da.

BOSGARRENA.- OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEARI aginduko zaio etorkizunean ez dezala egin zehapena jasotzea eragin dutenak bezalako jardunbiderik. Bete ezean, mila euroko (1.000 euro) hertsatzeko isuna ezarriko zaie atzeratzen diren egun bakoitzeko.

SEIGARRENA.- OSASUN-LAGUNTZARAKO ETA OSASUNERAKO ERAKUNDE PRIBATUETAKO TRAUMATOLOGOEN ELKARTEAK aurreko ataletan ezarritako betebeharrak guztiak bete dituela justifikatu beharko du Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan.



ZAZPIGARRENA.- Agindeia egingo zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, ebazpen hau guztiz betetzen den begiratu eta zain dezan.

Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 15a

LEHENDAKARIA

JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

LEHENDAKARIORDEA

JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

KIDEA

MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA

JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI



ERANSKINA

JARRAIBIDEAK

Ezarritako zehapen ekonomikoa ordaintzeari dagokionez

Lehenengoa.- Zenbatekoa ordaintzeko zuzeneko diru-sarrera egin beharko da erakunde hauen edozein sukurtsaletan: CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXA 3035-0012-77-0120900367; CAJA VITAL-VITAL KUTXA 2097-0178-12-0015172561; BBK 2095-0611-05-2131000143; KUTXA GIPUZKOA 2101-0381-09-0002788214; edo BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA (BBVA) 0182/5685/07/0000226271. Diru-sarrera “Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren” izenean egin beharko da, isuna ezartzea eragin duen eta Auzitegi honetan dagoen espediente-zenbakia zehatzuz.

Bigarrena.- Isuna ordaintzeko epeei dagokienez, abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretuak onetsi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamenduaren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraitu beharko zaio (1998ko urriaren 1eko 187. zenbakiko EHAA).

Hirugarrena.- Isuna ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ).